

# Historia euskaraz XX. mendean, nahiaren eta ezinaren artean. Lehen hurbiltzea

(History in Basque during the 20<sup>th</sup> century, between  
good wishes and impotence. An initial approach)

Aizpuru Murua, Mikel

UPV/EHU. Filologia, Geografia eta Historia Fakultatea.

Garaiko Historia Saila. Unibertsitatearen Pasealekua, 5.

01006 Gasteiz. hcpaimum@vc.ehu.es

Jaso: 04.03.03

Onartu: 04.03.03

BIBLID [1136-6834 (2005), 34; 423-451]

---

*Testu honen helburua XX. mendean zehar eta bereziki 1973 eta 2001 urteen artean euskaraz sortutako lanak aztertzea da. Lanaren emaitza bikoitza da. Alde batetik egindako ahalegina nabarmena da, 1500 lan inguru plazaratuz euskaraz denbora horretan. Garai eta joera gehienak daude ordezkaturik multzo horretan, euskarazko produkzioa inguruko historiografiaren parean dagoela erakutsiz. Bestetik, ordea, nabaria da euskarazko lanen zailtasunak korpus koherentea osatzeko eta Euskal Herriko Historiografian erreferente garrantzitsua bilakatzeko.*

*Giltza-Hitzak: Historiografia. Euskaraz. Euskal Herria. XX. mendea.*

*El objeto del presente texto es el análisis de los trabajos producidos en euskara durante el siglo XX, especialmente en el período que va de 1973 a 2001. El resultado del trabajo es doble. Por una parte, queda patente el esfuerzo realizado, ya que en dicho período se han publicado unos 1500 trabajos en euskara. En este grupo están representados la mayoría de las épocas y tendencias, mostrando que se encuentra a la par de la historiografía producida a nuestro alrededor. Por otra parte, no obstante, está claro que resulta difícil que los trabajos realizados en euskara constituyan un corpus coherente y lleguen a convertirse en referente importante en la Historiografía de Euskal Herria.*

*Palabras Clave: Historiografía. En euskara. País Vasco. Siglo XX.*

*L'objet de ce texte est d'analyser les travaux produits en euskara durant le XXème siècle, spécialement durant la période qui va de 1973 à 2001. Le résultat du travail est double. D'une part, l'effort réalisé est manifeste, car au cours de cette période environ 1500 travaux en euskara ont été publiés. La majorité des époques et des tendances sont représentées dans ce groupe, démontrant qu'il est à la hauteur des historiographies produites autour de nous. D'autre part, néanmoins, il est clair qu'il est difficile que les travaux réalisés en euskara constituent un corpus cohérent et parviennent à devenir une référence importante dans l'Historiographie d'Euskal Herria.*

*Mos clés: Historiographie. En euskara. Pays Basque. XXème siècle.*

## 1. SARRERA

Euskaraz idatzitako historia-lanak aztertzeke badaude saihestu beharreko bi tentaldi. Lehenak euskarazko historiografiarik ez dagoela edota eskasa dela adierazten digu. Bigarrenak, eskuartean historiografia oparoa dugula diosku. Biak alboratu behar dira. Uste ez nuen idazle eta titulu-kopuru oparoa aurkitu dut lan hau prestatzeko, baina egindako ahaleginen emaitza urria ere ikusi dut, baita zailtasun ugari ere gure gizartean zabaltzeko eta eragina edukitzeko. Ikerketa honek, beraz, –ikerketa lana delako hein handi batean hurrengo orrialdeetan aurkezten dena–, denboraren pisuak, axolagabekeriak, ezjakintasanak eta mespretxuak ezkutatu duten altxorra bistaratu nahi du, bitxiekin eta urrezko txanponekin batera dauden gaileta ustelak ezkutatu gabe, egindako lana goraiatuz eta ibilbidearen ezintasunak erakutsiz.

Euskarazko esaten dudanean, gehienbat originalak euskaraz idatzitako lanei erreparatu diet. Badakit itzulpenik gabe produkzioa urriagoa izango zela eta, bereziki, irakurlegoa askoz ere txikiagoa izango zela, irakaskuntzan erabiliko lan asko, bereziki, horrela sortu direlako. Itzulpenak baliagarriak dira hizkuntza eta irakurleak trebatzeko, gure jakintza maila handitzeko, baina ezin dute oinarritu korpus bat. Neronen lan batzuk itzuliak izan diren neurrian eta, halabeharrezko itzultzailea naizen aldetik, badakit zer nolako zailtasun eta neke ematen dituzten itzulpenek, baina ez dut uste zuzena denik gure produkzioaren azterketan sartzea, salbuespenak salbuespen.

Lanak planteatzen duen lehen arazoa zera da, ea euskarazko historiografiak adar propioa osatzeko gaitasunik izan ote duen. Erantzuna erraza da, ez. Gure inguruko herrialdeetan bezala, hemen ere, historiografia berritzailearen ibilbideak bide markatua jarraitu du, iragana ulertzeko ekimen koherentearen barruan, eta lan hori, gehienbat, gaztelaniaz egin da. Nahikoa da euskarazko lanen bibliografiari erreparatzea erdaraz idatzitako ikerketa lanen pisuaz jabetzeko. Ez dago, beraz, euskaraz sortu eta garatu den korpus propio eta bereziturik, garai bakoitzeko historiografia orokorrean hobeto edo okerrago txertatuta egon den euskarazko historiografia baino. Dena den, horrek ez du esan nahi, euskaraz ezer egin ez denik edota egindakoa txarra denik. Lan honek, hain zuzen, historialari profesionalok gehiegitan baztertutako lana erreibindikatu nahi du. Ez da erraza historialariaren definizio zehatza eta egokia eskaintzea. Hobsbawm-ek azaldu zuenez iragana antzeko erudizio-irizpideekin ikertzen duen pertsona oro da historialaria<sup>1</sup>. Baina definizio horrek arazo bat planteatzen du: ikerketa historikoa landu ez, baina sintesi-lanak edota dibulgazio-lanak idazten dituztenak historialari ote dira? Nik neuk zalantza gutxi daukat baiezkoa erantzuteko. Are gutxiago, kontuan izanik azken urte hauetan historia arloan gehien saldutako liburuak jende-mota horrek egin dituela eta, beraz, herritarren artean historiari buruzko ikuspegia ez dela, gehienetan, ikerlari profesionalak bultzatutakoa, bestelako historialariek landutakoa baino. Hobsbawm-engana berriro joz, gainera, azalpen orokorak lortzen ez dituen historiak ez duela asko balio gogoratu behar dugu<sup>2</sup>.

---

1. HOBBSAWM, E.: *Sobre la historia*, Barcelona, Crítica, 1998, 73. or.

2. HOBBSAWM, E.: *Sobre la historia*, Barcelona, Crítica, 1998, 43. or.

Historialariaren definizio zabala onartzeak honako ondorio hau dakar berarekin: nola finkatu gure denbora-epetan historiari buruzko lanak idatzi dituzten pertsonen zerrenda, zenbat eta zeintzuk diren eta zenbat eta nolako lanak idatzi dituzten. Bide horretan euskal historiografiak hutsune nabariak ditu. Alde batetik, 1970 inguruan hasi zen berrikuntza historiografikoak ia erabat baztertu zuelako aurreko historialariek idatzitako produkzioa. Bestetik, euskararen kasuan, arazoa are larriagoa da, historialari profesional gehienak erdaldun hutsak zirelako eta euskaraz idatzitako lan apurrak ezagutu ere ez zituztelako egiten. Beraz, egoera horrek, lan hirukoitza eskatzen digu. Lehena, korpua finkatzea, hots, ikuspegi historikotik idatzitako lanen zerrenda osatzea. Arestian esan dugunez, gainera, bilketa hori ez da mugatu behar estuki ikerketa lanetara. Gainera, beste jakintza arlo batzuk ere bildu behar ditu, hala nola, literaturaren historia, erlijioaren historia, zientziaren historia, biografia, zuzenbidea, etnografia, antropologia eta abar. Guztiek dutelako errealitatea ezagutzeko balioa. Nola ez sartu euskal historiaren barruan, adibidez, Aita Zavalaren lanak bertsoaritzaren inguruan? Bigarrenik, beste edozein historiografietan bezala korpus horren eta egileen azterketa kuantitatiboa, biografikoa eta analitikoa egin behar dira. Hirugarrenik, kontuan izanik aurretik egindako azalpena eta frankismoak gure historian ekarritako etena berreskuratze-lana egin behar da. Historialari profesionalok joera nabarmenegia dugu gure esparru hurbiletik kanpo dauden lanak baztertzeko, baina historiografiaren azterketa zuzen batek ahaztu edo zokoratutako pertsona eta lanak ere kontutan hartu behar ditu<sup>3</sup>. Euskarazko Historia diziplina moduan osatu nahi badugu, ezinbestekoa dugu gure iragana ezagutzea, nahiz eta ezaguna den tradizio orok iraganaren berformulazioa eta, neurri batean, asmatzea eskatzen duela.

Ikusten denez, asko da egiteko dagoena eta orrialde hauen egilearen gaitasuna eta ahalmena gaintitzen du. Lanaren asmoa apalagoa da, euskaraz landutako historiak egindako ibilbidearen zirriborroa azaltzea, gure eskura dauden tresna informatiboak erabiliz. Horrela, hiru zati nagusi izango ditu lanak. Lehenak 1976ra arteko ibilbidea jorratuko du era inpresionista batean; bigarrenak 1973. eta 2000. urteen bitartean sortutako produkzioaren azterketa kuantitatiboa landuko du eta, azkenekoan, euskaraz landutako historiaren ibilbidearen nondik norakoak azaltzen saiatuko naiz. Ondorio orokorre emango diote amaiera idazlanari. Hau gauzatzeko bi tresna nagusi izan ditut eskura. Batetik, Udako Euskal Unibertsitatearen Inguma datu-basea, ([www.inguma.com](http://www.inguma.com)) bertan biltzen baita unibertsitate-mailako euskarazko produkzioa, ahozkoa, zein idatzizkoa, 1973tik aurrera, hots UEU sortu zen unetik aurrera. Aurreko garaitako produkzioa eta bereziki, unibertsitatera zuzentzen ez den produkzioa alde batera uzten ditu bildumak. Bigarrena, Joan Mari Torrealdaik bildutako XX. mendeko euskal liburuen katalogo oparoa, lehenik *Jakin* aldizkarian, ondoren liburu moduan<sup>4</sup> eta azkenik sarean, ([---

3. MAJUELO GIL, E.: \*Euskal historiografiaren gaurko erronkak\*, Iruña, argitaragabea, 2001.](http://www.jakingu-</a></p></div><div data-bbox=)

4. TORREALDAI, J.M.: *XX. Mendeko Euskal Liburuaren Katalogoa (1900-1992)*, Donostia, Gipuzkoako Foru Aldundia, 1993; TORREALDAI, J.M.: *XX. Mendeko Euskal Liburuaren Katalogoa II (1993-1994)*, Donostia, Gipuzkoako Foru Aldundia, 1995; eta TORREALDAI, J.M.: *XX. Mendeko Euskal Liburuaren Katalogoa III (1995-1996)*, Donostia, Gipuzkoako Foru Aldundia, 1997.

nea.com). Sailkapena ez da beti egokiena eta, maizegi, itzulpen-lanak jatorriz euskaraz idatzitakoen parean azaltzen dira. Hala ere, Torrealdairen katalogoa guztiz lagungarria da lan honetarako. Ez da baztertu behar Susa argitaletxeak bultzatutako Ibiñagabeitia proiektua ([www.armiarma.com](http://www.armiarma.com)), aldizkarietan plazaratutako idazlanak miazteko lagungarri baita. Bestalde, baliabide horiek tresna egokiak dira honelako lanek duten hutsuneetako bat saihesteko, ezinezkoa izaten baita argitaratutako lan guztiak aipatzea edota aztertzea. Beraz, ez dadila inor mindu, halako edo holako liburu eta idazlana aipatu gabe uzteagatik; Ingumak bakarrik 1500 sarrera inguru ditu Historia atalean. Arakatzeko azalekoa izan da eta ziur nago, bai gerra-aurreko urteei dagokionez, baita Trantsizio Garaiari dagokionez ere hemen erabili dugun zerrenda halabeharrez luzatu behar dela, garaiko zenbait aldizkaritan lantxo dezente argitaratu ziren eta.

## 2. 1976RA ARTEKO GARAIA<sup>5</sup>

Historia ez da izan euskarazko produkzio idatzi urriaren kezka nabarmenena. XX. mende-hasieran, Gerra Zibila hasi aurretik erraz kontatu daitezke euskaraz idatzitako lanak. Gregorio Mujikaren zenbait liburuxka, Jose Artolak 1909an bertsoan idatzitako *Gipuzkoako probintziaren kondaira laster bat Espainiako beste zenbait pasartekin* eta garaiko aldizkari euskaldunetan idatzitako idazlanak. Horien artean bat bereizteagatik, Ignazia Praderek *Euskal Esnalea*-n kaleratutako *Gipuzkoako kondairarako Gorosabel-tar Pablo jaunak artu zituban nekeak*<sup>6</sup> azpimarratu nahi dut. Batetik egilea emakumea zelako; bestetik lanak Gorosabelen liburuen berri ematen digulako. Historialari tolosarraren egiarekin zuen lotura nabarmendu zuen, “naiz mingarriya izan”; horretarako ahalik eta iturri gehienak arakatu zituen eta nazioarteko bibliografira jo zuen, gezurrak alde batera utziz, horiek sortzeriari edota erlijioari mesede egin arren. Garaiko historialari gehienek gaztelaniaz argitaratu zituzten beraien lanak, euskaldunak izan arren, eta beraien ama-hizkuntza literatura-lanetarako utzi zuten.

Euskararen inguruko kontzientzia zabaldu eta sendotu zen heinean, gero eta errazagoa izan zen gure intereseko lanak aurkitzea. Bilakaera horrena adibide dugu, esaterako, Karmelo Etxegaraiaren kasua<sup>7</sup>. Bere lehenengo lanak euskaraz izan arren (poesia eta ipuinak), lan historiko gehienak gaztelaniaz idatzi zituen, baina ez zuen baztertu lehen hizkuntza hura, hitzaldi eta liburuxketan. Donostian, 1920ko hamarkadaren hasieran *Euskal Esnalea*-k antolatutako hitzaldietan parte hartu zuen, baita bere hitzaldia argitaratu ere: *Euskalerriko itsas-gizonak*, (Donostia, Euskal Esnalea, 1923).

---

5. Izenburuak XX. mendea aipatu arren, mende hasierako aipu labur baino ez dut egingo. Euskarazko historiografiaren lehen urratsen azterketa ikusteko, jo bedi KINTANA GOIRIENA, J.: “Euskarazko historiografia (I). Aurrekariak eta lehen pausoak (XVI-XIX mendeak)”, *Kondaira.com*, 0, 2003.

6. *Euskal Esnalea*, 66, 67, 68-69, 1913, 273-275, 289-293 eta 305-307 orr.

7. SAN MARTIN, J.: “Karmelo Etxegaraiaren Historia Iker Lanak”, *Egan*, 1/6, 1975, 28-32 orr.

Errepublikako urteetan Jose Migel Barandiaranen *Euskalerrico leen gizona* (1934), Ander Artzelusek itzulitako Bernardo Estornesen *Euzkadiko Edestia* eta haurrentzako prestatutako *Euskal Edestia* (biak 1935koak) dira aipagarrienak. Ez ziren falta, bestetik, zenbait santuren bizitzari buruzko lanak. Gerrak ez zuen aukera handirik eman euskarazko historia-lanik argitaratzeko. Garai hartakoa da, halaber, Xabier Gasteizek (Piarres Xarritonek) idatzitako *Eskualdunak* lantxoak, Estornesen *Euskal Edestia*-ren egokitzapena.

Erbesteak ez zuen aukera handirik eman lan horretan jarraitzeko. Isaac Lopez Mendizabalek eta Andres Irujok Argentinan sortutako *Ekin* argitaletxeak historiari buruzko liburuxka dezente argitaratu zituen, baina gehienak gaztelaniaz. Gerra-aurreko urteetan nabarmendu zen Ildefonso Gurrutxaga historialariak bazuen Buenos Aires-ko *Tierra Vasca* aldizkarian *Andik eta emendik* izeneko saila, eta bertan jorratutako gaien artean historia-lanak daude. Esanguratsua da 1956ko abenduaren 15eko alean Boissonnaderen *La conquista de Navarra*-ren inguruan idatzitakoa: “bildur naiz irakurle geiegi izango ez ote ditun, gure artean asko irakurri gabeko geitxogi dabil bere burua jakintsutzat daukatenak ta”<sup>8</sup>. Erbesteren kaleratutako aldizkariaren artean, *Euzko Gogoa* zen euskara hutsez idatzitako bakarra. Euskararen egoera eta iraupena izanik bere kezka nagusiak ez da harritzekoa historiara zuzendutako lan apurra kultura-gaiekin lotura zuzena izatea. Bestelakoan artean bat nabarmentzekotan, *Amayur* ezizenez 1950. urtean “Euskalerrria Yesukisto ´ren garaian Strabon ´aren arauz” lana nabarmendu behar da. Baita Jon Mirandek Irlandako historiari eskainitakoak (1954-1955). Ipar Euskal Herriaren argitaratutako *Gernikan* are eskasagoak ziren euskaraz argitaratutako idazlanen kopurua. Aldizkariaren zereginen artean egon arren “patriótica labor de fomento y difusión de las letras, de los conocimientos de la historia y de la etnología del país...” aita Villasanteren bi artikulu dira multzo horretan sar daitezkeen bakarrak, Miranderen etnografiari eta historia-politikari eskainitako lan birekin batera. Azken horretan Mirandek Euskal Herriaren Ertaroko historia erreibindikatzen zuen, euskaldunok “beren Ipharr eta Hegoaldeko hauzoen bildurra izan” zirelako, Garonaraino heldu zirenean eta Nafarroako estatua sortu zutenean<sup>9</sup>. Donostiako *Eganen*, berriz, apur bat ugariagoak ziren, Juan San Martinen eta Manuel Lekuonaren ahalegini esker bereziki

Ulergarria da frankismoaren giro itolarrian nekez garatzea euskarazko lanak eta are gutxiago historiarekin lotutakoak. 1950eko hamarkadara arte itxaron behar dugu Hego Euskal Herriaren lehen liburua aurkitzeko, Salbatore Mitxelenaren *Ama-semeak Aranzazuko kondairan* (1951)<sup>10</sup>. Ez zen kasualitatea izan, Mitxelena frantziskotarra izan zelako gerra osteko euskal letren berpiztearen lehen gailurra, literaturan (*Aranzazu euskal-poema*) eta saiakeran (*Unamuno eta abendats*). Lau urte geroago Jon Etxaidek *Joanak joan*, bere lehen nobela argitaratu zuen; ordurarteko nobeletan ohikoa zen giro idilikitik urrundu zen lan horretan, eta 1958an *Amasei seme Euskalerriko*, (Zarautz,

---

8. GURRUCHAGA, I.: *Aprendamos nuestra historia. Sarrera eta aukera/edición y prólogo: María Luisa San Miguel*, Donostia, Saturrarán argitaletxea, 2002, 184 or.

9. MIRANDE, J.: “Euskaldungoaren etsaiak”, *Gernika*, 23, 1953.

10. MITXELENA, S.: *Ama-Semeak Aranzazuko kondairan*, Itxaropena, Zarautz, 1951.

Itxaropena) argitaratu zuen. Liburu hori historiaren arloan sar daiteke, euskal kulturaren 16 lagunen biografiak eskaintzen baitzituen Etxaidek bertan. Hirurogeiko hamarkadaren hasieran plazaratu zen Francisco Apalategiren, *Euskal mutillak armetan I*, (Tolosa, Auspoa 1961), bigarren gerra karlistako oroitzapen eta bertsoak bilduz, eta 1965ean Antonio Maria Labayenen *Domenjon de Andia, Gipuzkoako Erregia*, (Zarautz, Itxaropena). Lanen gaien eta metodologiaren aniztasuna gorabehera, guztiek zuten lotura gerra aurreko kezkekin, bai eta hizkuntza-ereduan ere. Garai berean Euskal Herrian gaztelaniaz egiten zen historiaren parekoa zen, baina urruti zegoen Europan eta Espainiako unibertsitate batzuetan ematen hasi zen berrikuntza historiografikotik<sup>11</sup>.

Euskarazko kulturaren berrikuntza garai berean hasi zen, 1956an sortu baitzen aldaketaren ikurra izango zen *Jakin* aldizkaria. Bertan nabarmendu zen belaunaldi zaharraren eta berriaren arteko etena, nahiz eta haustura 60ko hamarkadan gertatu. *Jakin*-en hizkuntza-eredua euskararen ulergarritasunean eta baliagarritasunean oinarritzen zen eta herritar xehearen eskura jarri nahi zen<sup>12</sup>. Zoritxarrez guretzat *Jakin* aldizkariak ez zion toki berezirik eskaini Historiari, bai, aldiz, saiakerari<sup>13</sup>. Oso esanguratsua da bide horretan ikustea 1981ean aldizkariak argitaratutako aurkibidean ez zegoela *Historia* sarrerarik. 1956tik eta 1969 bitartean argitaratutako zenbakiak miatzen baditugu artikululu gutxi aurkitu dugu Historiaren inguruan. Horien artean deigarria egin zait Jokin Apalategik artikululu luze baten barruan “kondaira”ri egindako tartea. Bertan, gaur Soziologia katedraduna denak, herriek beraien zimenduak gorde behar zituztela eta ardatz historikoen beharra gogoratzeaz gain, era nahasian, Nietzsche, Marx eta Marcuse-ren aipuak erabiliz, Historiaren kontzeptu klasikoaren aurkako erasoa planteatzen zuen, “kultura historiaren mugetara mugatzeak dakarren ahuldadea ta historia-eritasunok” erakutsiz, historia kulturaren sinonimotzat hartzea okerra baitzen, baita “historia zenbaki, izen eta beste zenbait xehetasunera bihurtuz gero, narzisokeria egiten dutenak. E(goe)ra berean (zeuden) “arkeologikerian” erortzen direnak”<sup>14</sup>. Kritika-mota horrek, irtenbide zehatzik proposatu gabe, Soziologiaren garrantzia azpimarratzen zuen eta garaiko kezka politikoekin batera, gizarte aldaketa iraultzailera bideratuta, nekez lagun zezakeen historiaren eredu zahar eta berriak txertatzea gure artean.

Apalategik hausnarketa hori argitaratu zuen urte berean kaleratu zen garai horretan beste historia mota batekin lotura zuzena zuen liburua: Timun Mas argitaletxe kataluinarrak plazaratutako Werner Watsonen *Errialde guztien Histo-*

---

11. URRUTIKOETXEA LIZARRAGA, J.: “La historia vasca ante el siglo XXI. Asignaturas pendientes. Una visión desde Gipuzkoa (1975-2000)”, *Sancho El Sabio*, 19, 2003, 9-66 orr.

12. ETXEBERRIA, G.: “Euskal kultura eta literatura 50eko hamarkadan”, *Egan*, 3/4, 2001, 5-8 orr.

13. ALTZIBAR, X. “El ensayo del XX”, in P. URKIZU: *Historia de la literatura vasca*, Madrid, UNED, 2001, 589-627 eta AZURMENDI, J.: “Euskarazko saioa XX. mendean”, *Hegats*, 4, 1991, 177-199 orr.

14. APALATEGI, J.: “Euskal kultura nora eta nola zuzendu behar dugu?” *Jakin*, 34, 1969, 44-45 orr.

riaren itzulpena<sup>15</sup>. Marraskiz ondo apaindurik zegoen liburu handiak aukera ona eskaintzen zuen euskara lan berrietan trebatzeko, munduaren historia unibertsala lantzen baitzuen, K.A. 50.000. urtetik hasi eta 1960. urtera arte. Baina emaitza ez zen biribila izan. Itzultzailea Jon Goikoetxea-Maiza josulaguna izan zen, Manuel Lekuonaren ardurapean. Azken horren iritzia, Euskaltzaindiako orduko lehendakaria zen, urrun geratzen zen garai hartan, zegoeneko, euskal idazle asko jorratzen ari ziren bidetik. Joskera txukunaren ondoan, garbizaletasunaren eta jatortasunaren kezka hizkuntza-mota jakin bat erabiltzera bultzatu zuen liburuaren euskaratzaileak, eta zehaztasuna alde batera utzi zuten. Horren adibide dugu lanaren izenburuan Historia erabili arren, atarikoan Kondaira eta Edestia erabiltzea haren ordeko moduan. Goikoetxea bera ez zen historialaria eta bere lanik ezagunena Gamiz idazlearen inguruko azterketa izan zen. Urte horretan bertan plazaratu zen Anes Arrinda *Euskalerrri zaarra*<sup>16</sup>, urte batzuk lehenago gaztelaniaz argitaratutakoaren egokitzapena.

1970eko hamarkadaren lehen urteak oparoak izan ziren euskal historiografiarako. Jarrera berrien lekuko izan zitekeen Ramon Saizarbitoriak, Ibon Sarasolak eta Arantxa Urretabizkaiak plazaratu zuten *Mendebaleko Ekonomiaren Historia* (Lur argitaletxea, 1970). Horren atzetik historia, politika eta ekonomiari lotutako hainbat lan idatzi ziren. Horien artean, lan historikoaren ikuspuntutik, toki nabarmena hartu zuen Mikel Ugaldek idatzitako liburu honek: *Langileria historian zehar* (Etor-Gero, 1971 eta 1974)<sup>17</sup>. Era berean, oihartzun berezia izan zuten itzultitako zenbait testu historikok; hala nola *Komunista Alderdiaren Agiria* (1971), Karl Marxen *Lan alokatua eta kapitala* (Lur, 1971) eta M. Dobben *Sozialismoaren frogantzak* (Lur, 1971). Joera horren jarraipen ezak ondo adierazten du gure jakintza-arloa garatzeko zeuden zailtasunak eta zenbait joera ideologikoen pisua eta muga. Garai berekoak dira Gotzon Garateren zenbait lan, Historia, Filosofia eta Zientzia Politikoaren artean sailkatu beharrekoak<sup>18</sup>, baina marxismoari buruzko askoz ere jarrera kritikoa azaldu zuen. Aipatutako lanez gain, Benantxio Otaegik *Lehen gizarteak. Historia* (1971) liburua argitaratu zuen eta hurrengo urtean *Euskaldunak Argentinan* Zubillagak; L. M. Muxikak *Aintzinako Sozio-Ekonomia (I)*, (Bilbao, Gero, 1974) plazaratu zuen, Jesus Altunak *Lehen Euskal Herria*, (Bilbao, Gero, 1975) eta Antonio Maria Labayenek *Muñagorri eskribaua, pakegille ta fuerozale*, (Donostia, Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, S.A., 1976).

Historiako lan gehienak, ordea, gaztelaniaz edota frantsesez argitaratu ziren. Nabarmena da, bide horretan, egileek, euskaldunak izan arren, nahiago zutela beste hizkuntza batean argitaratzea (Davanten kasua Ipar Euskal

---

15. WERNER WATSON, J.: *Errialde guztien historia*, Donostia-Barcelona, Financiera Comercial del Libro-Timun Mas, S.A., 1969.

16. ARRINDA, A.: *Euskalerrri zaarra (Gu Euskaldunak)*, Donostia, Izarra, 1969.

17. Ugalderen lana, besteen aldean orrialde kopuruz eta edukinez askoz ere osotuagoa zen, nahiz eta garaiko moda ideologikoen eraginak mugatu bere garapena.

18. GARATE, G.: *Marxen marxismoa*, Bilbao, Etor-Gero, 1971, GARATE, G.: *Marx eta nazioa*, Bilbao, Etor-Gero, 1972. GARATE, G.: *Marxen ondoko errebisionismoa. Rosa Luxemburgo eta Leninen bizitza*, Bilbao, Gero, 1974, GARATE, G.: *Maoren Marxismoa: Maoismoa*, Bilbo, Gero, 1977 eta GARATE, G.: *Leninen marxismoa: leninismoa*, Bilbo, Mensajero, 1984.



Herrian<sup>19</sup>) edota itzulpenetara jotzea, Federico Zabalaren kasua Bidasoaren Hegoaldean. Azken horren lanak izan ziren, itzulpenen bitartez, Euskal Herriko Historiaren ikuspegia berreskuratu zutenak, eta horrela gerra-aurreko tradizio laburrarekin lotura egin zuen. Hala 1971. urtean hiru liburu atera ziren bere sinadurarekin, gaztelaniaz idatzitako *Historia del Pueblo Vasco*-zen lehen zatia<sup>20</sup>. *Euskal Herriko Historiaren laburpena*<sup>21</sup> eta *Euskal Herriaren Historia I*. Laburpenaren itzultzailea Juan Antonio Iglesias izan bazen ere, bestearena *Jakin* taldea izan zen<sup>22</sup>.

*Jakin* taldeak, egoera latza bizi zuen une hartan agintari frankistek agindutako aldizkariaren itxiera zela eta. Horren ondorioz beraien lanak argitaratzeko orduan bi bide hartu zituzten. Batetik liburu moduan atera zuten aldizkaria, lan desberdinak gai nagusi baten inguruan antolatuz. Kasu batzuetan, historiak izan zuen bere tokia lan horietan. Bestetik, zenbait liburu monografiko argitaratu zituzten, gizarte-zientziekin lotuta gehienbat. Historiari dagokionez, Joseba Intxaustik kaleratutako *Iraultzaren hildotik*, Arantzazu, Jakin-EFA, (1972) izan zen ikerketa-lan garrantzitsuena<sup>23</sup>. Bi urte geroago, talde berak *Lur eta Gizon-Euskal Herria*, (Arantzazu-Oinati, Jakin) eman zuen argitara. Intxaustiren zuzendaritzapean egileek Euskal Herriaren ikuspegi historiko-geografikoa landu zuten lau sailetan banatuta: gizona eta lurra; euskal lana, hizkuntza eta "izanbideak" (legea, artea eta kirola). Lanaren helburua herriak kondaira nola egiten zuen erakustea zen, "history from below"ren euskal bertsioa osatuz. Horretarako, ordura arteko lan gehienetan ez bezala, pertsona arrunten bizitzak arakatu zituzten eta ez pertsonaia handiena. Egileen eta gaien aniztasunak, ordea, lan desorekatua ekarri zuten. Edozein kasutan, hurrengo urteetan Joseba Intxaustik errepikatuko zuen bide bati eman zitzaion hasiera.

Euskarazko produkzioa ez zen mugatu liburuetara. *Anaitasuna* eta *Zeruko Argia* aldizkariak historiarekin lotutako hainbat berri zabaldu zuten: hitzaldizikloak, eta haietan esandakoak<sup>24</sup>, eta zenbait libururen kritika. Bi aipatuko ditugu hemen. Batetik, Stanley Payneren *El nacionalismo vasco*-n esandakoei egindako iruzkinak: lehena Xabier Letek<sup>25</sup>, eta geroago Koldo Mitxele-

---

19. DAVANT, J.L.: *Histoire du Pays Basque*, Baiona, 1970.

20. ZABALA, F.: *Historia del Pueblo Vasco I*, San Sebastián, Auñamendi, 1971.

21. Ez dut aukerarik izan liburuxka hori erabiltzeko.

22. ZABALA, F.: *Euskal Herriaren Historia I*, Etor-Jakin, Arantzazu, 1971.

ZABALA, F.: *Euskal-Herriko Historiaren laburpena*, Donostia, Izarra, 1971.

Arrazoi zehatza ezagutu ez arren, agian badute bere garrantzia gaztelaniazko azken alea 1973an argitaratzeak, euskarazkoa 1975 arte atzeratuz, eta argialetxea oraingo honetan Jakin bakarrik izateak.

23. Berarekin batera argitaratu zen Jean Hiriart-Urrutyren artikulua bilduma, *Zezenak Errepublikan* (Jakin 1972).

24. Ikusi adibidez, *Zeruko Argia* 531, 1973-5-6. "Españako Legearen Vgn Historia Astea" eta 690, 1976-5-30. "Euskal historia astea".

25. *Zeruko Argia* 605, 1974-10-5. "Stanley G. Payne eta Euskal Nazionalismoa".



nak<sup>26</sup>. Bestetik, urte berean Martin Ugaldere *Síntesis de la Historia del País Vasco* argitaratu ondoren, liburuaren inguruan sortutako kritikei Ugaldek berak eta Aingeru Irigarai (Apat Etxebarne ezizenarekin) erantzundakoak<sup>27</sup>. Interesgarriak dira Irigarairen azkeneko hitzak:

Gure Historian, pasatu diren gauzak, iragan bezala kontatu behar ditugula, edo usten izaten den gisara; baina ez, eiki, guk nahiko genukeen bezala. Honela, komedia pollit bat osa dezakegu, baina ez Historia. Eta euskaltzale oro edo gehienei zuzendua, ez alderdi batekoei, dela progre edo dela eskuin. Gure artean, geren utsak aitortzea, jakitun diran batzuek ere ezin dute onartu.

Euskarazko lanek, kopuruari zegokionez gutxi izateaz gain, bazuten beste bi arazo, batzuk euskal eta espainiar historiografian ematen ari zen iraultza-  
ren kezketatik urruti aurkitzen zirela, besteak ezezagunak zirela erdal irakurle eta historialarientzat. Lanen kalitatea gorabehera, hizkuntzak eta gaiek nekez gainditu zitekeen hesia osatu zuten. Hala, garai hartako zabalkunde gehien eduki zuten lanek, Martin Ugaldere *Síntesis de la Historia del País Vasco*, (Seminario y Ediciones, 1974) eta Ortziere *Historia de Euskadi*, (Ruedo Ibérico, 1975) gaztelaniaz idatzi ziren.

Halaber, gaztelaniaz plazaratu ziren berrikuntza historiografikoarekin lotutako ia lan guztiak (Otazu, Fernández de Pinedo, Albadalejo, Fusi, Olabari, González Portilla,). Espainiako unibertsitate desberdinetan ikasi edota lanean ari ziren historialarien eskutik etorri ziren lan horiek eta jasotako hezkuntzak eta egitura akademikoarekiko loturak asko urruntzen zituzten ordura arte Euskal Herriko historialaritzan nagusi izan ziren pertsonengandik<sup>28</sup>. Azken horiek, frankismo garaian, aldundietako zenbait erakundetan izan zuten antolatze eta biltze gune nagusiak eta beraien lan-ardatza ez zen historia orokorra lantzea, irizpide historiografiko modernokin, tokiko historia baino. Erakunde horien aniztasuna (etnografia, artea, zuzenbidea, historia eta literatura lantzen ziren) gorabehera, ez ziren gai izan berrikuntza historiografikoari aurre egiteko<sup>29</sup>. Historialari tradizionalen artean, gainera, euskara ez zen gehien erabiltzen zen hizkuntza<sup>30</sup>.

---

26. Zeruko Argia 609, 1974-11-3. "Gizona abilla da, badu pantasiya". Mitxelenak euskaraz jorratutako lanen artean bat liburuaren kritika izan zen eta horien artean historiakoek pisu garrantzitsua izan zuten. Ikus, MITXELENA, K.: *Euskal idazlan guztiak*, Donostia, EEE, 1988.

27. Zeruko Argia 618, 1974-12-28, "Bi liburu eta ohar batzuk" eta Zeruko Argia 621, 1975-1-26. "Martin Ugalde-n Bi liburu eta ohar... delakoari buruz lau lerro".

28. Euskal Herrirako lanik egon ez arren, lan bat gomendatu nahi dut historialarien taldearen osaketa eta garapenari buruz: NOIRIEL, G.: *Sobre la crisis de la historia*, Madrid, Cátedra-Universidad de Valencia, 1997, lehen atala bereziki.

29. MAJUELO, E.: *Euskal historiografiaren gaurko erronkak*, Iruña, argitaragabea, 2001.

30. Manuel LEKUONAREN lanak aztertuz gero eta historiaren arlora mugatuz, nabarmena da gaztelaniaz idatzitako artikulua eta liburuaren pisua, nahiz eta euskara ere erabili. LEKUONA, M.: *Idazlan guztiak*, Tolosa, Kardaberaz, 1983. Historiari, kondairari, eskaintako lau tomoak, 4.a, 5.a, 6.a eta 7.a dira, baina 2.ean (etnografia) eta 3.ean (arte) badaude historiarekin lotuta euskaraz egindakoak ere.

Historialari gazteen belaunaldia ikerkuntzaren bidean murgildu zen betebetan eta, aurreko tradizioarekin apurtu arren eta agiri idatzietan soilik oinarritu arren<sup>31</sup>, euskal historiaren ezagutza ordura arteko mailarik gorenera eramane zuen<sup>32</sup>. Euskaraz idazten zuten historialari berriak oinarrituko eta bigarren mailako irakaskuntzarekin lotuta zeuden. Beraien lehenetsunak, lanmetodoak eta eskura zituzten baliabideak aurreko taldetik urrun kokatzen zituzten. Hori gutxi balitz, ikerketa euskaraz urratzen saiatu ziren idazleak, (Joxe Azurmendiren lanak lekuko<sup>33</sup>), baztertuta geratu ziren, ez dakit erabilitako hizkuntzagatik, edota gaiei emandako tratamenduagatik.

Historiografia berria euskaraz plazaratzeko ahalegina ere egin zen, itzulpenaren bitartez, Alfonso Otazuren *Euskal Berdintasuna I* (Lur, 1973), baina beste askotan bezala, ez zuen jarraipenik eduki. Gainera, *Lur* argitaletxea, (lan hauetako askoren argitaratzailea) desegin egin zen; eta bere jarraitzaileak, Haranburu-Altunak, gaztelaniaz idatzitako lanak bultzatu zituen edota itzulpenetan oinarritutako entziklopediak.

Horrela, frankismoaren azken urteetan euskal historialari profesionalen komunitatea egituratzen hasi zenean, horren topa-guneak, elkartruke eta birsortze-eremuak, inguru juridikoa eta geografia akademikoak eta historialariaren jardura akademiko eta pertsonalaren garapena baldintzatzen zuten elementu guztiek<sup>34</sup> gaztelaniaz funtzionatu zuten.

### **3. EUSKARAZ IDATZITAKO HISTORIA-LANEN AZTERKETA KUANTITATIBOA, 1973-2001**

Euskaraz lan egiten dugun historialariok eskura ditugun tresnen artean bada bat bereziki garrantzitsua azterketa historiografikoak landu nahi ditugunean: Inguma datu-basea ([www.inguma.org](http://www.inguma.org)). Udako Euskal Unibertsitateak sortu eta elikatzen duen iturri horrek 1973tik aurrera euskaraz unibertsitate mailako garatutako produkzioa osoa biltzen saiatzen da, ahozko zein idatzizkoa izan. Hurrengo orrialdeetan aurkeztuko den azterketa bertako arduraduan den Karmele Artetxeren laguntzari esker egin izan ahal da.

---

31. Joera horren kritika LECUONA, M.: "Escollos de nuestra historiografía. Normas de buen sentido para nuestros historiógrafos", *BRSBAP*, XXVII, 1971, 3-18 orr.

32. URRUTIKOETXEA LIZARRAGA, J.: "La historia vasca ante el siglo XXI. Asignaturas pendientes. Una visión desde Gipuzkoa (1975-2000)", *Sancho El Sabio*, 19, 2003, 9-66 orr.

33. AZURMENDI, J.: *Iraultza sobietarra eta literatura*, Bilbao, Gero, 1975.

AZURMENDI, J.: *Errealismo sozialistaz*, Donostia, Luis Haranburu, 1978.

AZURMENDI, J.: *Arana-Goiri-ren pentsamentu politikoa*, Donostia, Hordago, 1979.

AZURMENDI, J.: *P.S.O.E. eta euskal abertzaletasuna (1894-1934)*, Donostia, Hordago, 1979.

AZURMENDI, J.: *Nazionalismoa/Internazionalismoa Euskadin*, Donostia, Hordago, 1980.

34. MARIN GELABERT, M.A.: "El aleteo del lepidóptero. La reincorporación de la historiografía española al entorno de la profesión en Europa en los años cincuenta", *Gerónimo de Uztariz*, 19, 2003, 119-160 orr.

### 3.1. Euskarazko produkzio zientifikoaren bilakaera (1973-2001)




Lehen laukian euskarazko produkzio zientifikoaren bilakaera ikus daiteke 1973 eta 2001. urteen bitartean. Ez da euskaraz idatzi den guztia, ustez unibertsitate-mailakoa baino. Hemen azaltzen diren 17.000 sarrerei beste asko gehitu beharko genituzke, Irakaskuntza Ertainarekin edota dibulgazioarekin lotutakoak euskarazko produkzioaren erradiografia zehatzagoa eduki ahal izateko. Grafikoan hiru gailur ikus daitezke, bata 1977. urtearen inguruan, Francoren heriotzaren ondoren euskal kulturak izan zuen susperraldia azaltzen duena, ondoren mantentze-aldi dugu, 1984. urtetik aurrera berriro goraka egiteko, Euskal Herriko Unibertsitateak irakaskuntza elebiduna indartzearekin bat egiten duena eta hirugarrena 1995-1997 urteen inguruan, Hezkuntza-prozesu osoaren euskalduntzeak unibertsitatera milaka ikasle euskaldun ekarri zituenean. Esanguratsua da, halaber, gailur horien atzetik ematen den jaitsiera, une bakoitzean egindako indarrak atsedenaldira eskatuko balu moduan.

### 3.2. Historia produkzioaren bilakaera (1973-2001)

Aurrekoan esandako gauza bera aipatu beharrean gaude. Hemen ez dago euskaraz landutako Historiari buruzko produkzio osoa. Ziur aski, gainera, Historiaren produkzio osoa eta Inguman jasotakoaren artean dagoen aldea, beste diziplina dagoena baino handiagoa dugu, dibulgazioak eta tokiko-historia liburuak duten pisua kontutan hartuz. Historiari buruzko produkzioak euskarazko produkzio zientifikoaren bide bera jarraitu du, hots, hazkunde nabarmena izan du denbora-epe honetan, baina askoz ere irregularragoa izan da. Edozein kasutan produkzio osoa 17.600 sarreretakoa baldin bada, historiari dagozkionak 1.426 dira, %10aren inguruan. Kontutan hartuz Ingumak zientziaren arlo guztiak hartzen dituela kopuru polita osatzen dugu datu-base horretan.

**Historiako produkzio osoa 1973-2001**



Gorako joera horretan krisi ugari eman dira arrazoi desberdinen ondorioz, hazkundera bera bultzatu duten elementuekin estuki lotuta daudenak gainera. Nire iritziz, hiru dira hazkunderaren arrazoiak, Udako Euskal Unibertsitateak egindako ahalegina, Euskal Herriko Unibertsitatean 1987 gerotik Historiako ikasketetan lerro elebidunaren ezarrera eta, hirugarrenik, Irakaskuntza Ertainetan, eta, orokorrean, euskal gizartearen euskaldunen kopuruaren garapenak. Behin eta berriz errepikatzen diren mini-krisi horien atzetik faktore bakoitzaren ezaugarriak daude. UEUren Historia Sailak, aurrerago ikusiko dugunez, ez du, denbora luzean, iraunkortasunik izan eta talde berriak heltzean, maiz, hasierako helburuak apaldu beharra izan dute. EHUren Historia fakultateari dagokionez, bertako euskalduntzea ikasleen eta unibertsitatearen presiopean egin zen, eta ez bertako irakasleek bultzatuta. Ondorioz, fakultatearen motore-gaitasuna erabat mugatuta egon da. Unibertsitate-esparrutik kanpo egindako ahaleginak era isolatuan, pertsona eta erakundearen eskutik, egin da, inongo koordinaziorik gabe, unean-uneko arazo eta eskariei irtenbidea emanez. Pertsonak edota kezak aldatu direnean, produkzioak behera egin du.

### 3.3. Historia produkzioa. Artikuluak eta hitzaldiak zehaztuta

Historia produkzioa						
	Hitzaldiak	Artikuluak	Liburuak	Ikastaroak	HAA <sup>35</sup>	Historia produkzioa
1973	3	0	1	0	1	5
1974	0	1	1	0	2	5
1975	0	0	2	0	0	2
1976	1	0	0	0	1	2

35. Hitzaurreak, liburuetako atalak eta liburu-aipamenak

	<i>Hitzaldiak</i>	<i>Artikuluak</i>	<i>Liburuak</i>	<i>Ikastaroak</i>	<i>HAA</i>	<i>Historia produkzioa</i>
1977	14	3	0	0	2	19
1978	1	4	0	2	1	8
1979	2	3	0	0	0	5
1980	2	3	0	3	1	9
1981	5	17	0	1	0	23
1982	5	6	2	0	5	18
1983	0	17	0	0	1	18
1984	16	20	0	1	4	41
1985	9	23	1	1	20	54
1986	21	25	0	1	0	47
1987	14	22	2	1	5	44
1988	18	25	3	0	2	48
1989	14	30	2	1	5	52
1990	19	30	8	2	7	67
1991	13	27	5	0	2	47
1992	16	35	6	2	4	66
1993	17	27	7	3	8	65
1994	30	26	3	3	10	72
1995	12	36	10	2	16	80
1996	19	61	9	3	7	101
1997	29	32	10	2	23	98
1998	16	35	25	5	7	90
1999	38	43	17	4	11	116
2000	46	26	20	7	4	105
2001	29	46	23	3	11	119
<b>GUZTIRA</b>	<b>409</b>	<b>623</b>	<b>157</b>	<b>47</b>	<b>160</b>	<b>1.426</b>

Kopuru hauek hobeto erakusten dizkigute euskaraz egindako Historiografiaren errealitatea. Bada datu deigarria, hitzaldi eta ikastaroei, beriziki UEUK antolatutakoek, betetzen duten eremu zabala, ia hiru sarreretatik bat multzo horretan sartu behar dugu. Ez dirudi historiografia normalizatu baten ahozko produkzioak horrelako pisurik eduki beharko lukeenik. Artikuluek eta liburutatek osatzen duten zatirik ugariena, produkzio erdia eta liburuak, aldiz, txikiak. Gizarte-zientzietan arrunta izan arren egoera hori, ez da gauza bera gertatzen Historiaren arloan. Hemen, normalean liburuen pisua garrantzitsua delako. Liburuen ahulezia are nabarmenagoa da euskarazko historian kontutan hartzen badugu azken urteetako hazkundera neurri handi batean artifiziala dela, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak bultzatutako biografia laburren bildumari dagokiolako, urtero 10-12 argitaratu dituztelarik. Hurrengo laukian ikusten denez, garbi dago historialarien artean ez dagoela lan-luzeak idazteko ohiturarik.

### 3.4. Egileak artikuluko kopuruaren arabera

	Egile kopurua	Artikulu kopurua	Izena
159	1		
39	2		
15	3		
8	4		
8	5		
6	6		
5	7		
6	8		
3	9		
1	12	Lino Akesolo	
2	16	Josu Chueca/ Piarres Xarriton	
1	18	Julen Urkiza	
3	19	Joseba Intxausti/ Patxi Zabaleta/ Jose M <sup>a</sup> Satrustegi	
1	24	Joseba Agirreazkuenaga	
1	34	Juan San Martin	
1	35	Jose Antonio Arana Martija	

Hiru dira lauki honetatik atera daitezkeen ondorio garrantzitsuenak. Lehe-  
na 259 artikuluko egile daudela 662 artikuluko idatzi dituztenak. Ez dira gutxi,  
beraz, inoiz Historia-lanak euskaraz idatzi dituztenak. Beste bi ondorioak, dena  
den, ez dira hain pozgarriak. Izan ere, 259 lagun horietatik 198k artikuluko baka-  
rra edota, asko jota, bi idatzi dituzte. Datu horrek, beraz, agerian uzten du egile  
horien konpromiso ahula, ez dakigu oso ondo Historiarekin, euskararekin,  
edota biek. Hirugarren ondorioak, azkenik, euskarazko produkzioa eta unibers-  
titatearen artean dagoen amildegia erakusten du. Izan ere, 10 artikuluko baino  
gehiago idatzi dutenen artean bi baino ez dira unibertsitateko irakasleak (Josu  
Chueca eta Joseba Agirreazkuenaga). Besteak, gehienetan, esperientzia handi-  
ko pertsonak izateaz gain, nekez definitu daitezke historialari bezala, Urkizaren  
salbuespenarekin eta bai, poligrafo moduan, beraien jakintza-esparruak histori-  
ariarekin batera, hizkuntza, artea, etnografia, musika, literatura eta abar izan  
direlako. Ez da kasualitatea, hain zuzen, ia denak euskaltzainak izatea.

### 3.5. Azken 20 bat urteotan Historia artikuluko argitaratu dituzten aldizkariak

Hiru multzotan banatu ditugu aldizkariak: lehen multzoan historiarekin lotu-  
tako 50 artikuluko baino gehiago argitaratu dituzten aldizkariak, bigarren 20  
eta 50 bitartean daudenak eta hirugarren 20 baino gutxiago dituztenak.

#### 1. MULTZOA

- 173 *Euskera, Euskaltzaindiaren lan eta agiriak*, 25-47.2 (1980-2002)
- 72 *Karmel*, 170-232 (1984-2000)
- 63 *Jakin*, 1-134 (1977-2003)

## 2. MULTZOA

- 31 *Uztaro, giza eta gizarte-zientzien aldizkaria*, 1-46 (1990-2003)
- 26 *Egan* (1983-2003)
- 24 *Hegats literatur aldizkaria*, 1-32 (1989-2003)
- 2) *Elhuyar Zientzia eta Teknika*, 91-166 (1995-2001)

## 3. MULTZOA

- 19 *Vasconia: cuadernos de historia y geografía*, 1-31 (1983-2001)
- 15 *Revista Internacional de los Estudios Vascos (RIEV)*, 28-46.2 (1983-2001)
- 14 *Bidebarrieta: Bilboko Giza eta Gizarte Z. ald.*, 1-12 (1996-2003)
- 12 *Oihenart: cuadernos de lengua y literatura*, 1-19 (1982-2001)
- 12 *Fontes Linguae Vasconum, studia et documenta*, 35-89 (1980-2002)
- 12 *Larrun*, 1-23 (1985-1994)
- 12 *Leyçaur: Andoaingo ikerketa historikoen aldizkaria*, 0-7 (1996-2002)
- 11 *Elhuyar aldizkaria*, 1-22 (1974-1996)
- 9 *ASJU*, 14-34 (1980-2000)
- 9 *Geronimo de Uztariz aldizkaria*, 1-15 (1987-1999)
- 1 *Muga, revista mensual*, 1-95 (1979-1996)


Emaitzek aurreko laukian azaldutakoa berresten dute. Lehen multzoan dauden hiru aldizkariak ez dira zuzenean Historia-aldizkariak. *Euskera* Euskaltzaindiaren aldizkaria dugu eta, beraz, bertan argitaratutako idazlan historiko gehienak hizkuntza eta kulturarekin dute lotura. *Karmel* Karmeldarren ordenaren aldizkaria da eta bertako lan gehienak erlijio-gaiekin lotuta daude. *Jakin*, azkenik, kultura-aldizkaria dugu eta historiak bigarren toki bat betetzen du bertan, nahiz eta noizean behin pisu dezente izan duen aldizkari horretan. Bigarren multzoan euskalgintzak sortutako aldizkariak ditugu, bi literaturari lotuta daude, *Egan* eta *Hegats*, beste bat Zientzia esparrura, *Elhuyar* eta *Uztaro*, azkenik, giza eta gizarte-zientzietara. Hau da paradigma historiografiko unibertsitarioetara gehien hurbiltzen den aldizkaria, baina gehienetan ale bakoitzean artikulu bakarra dago gure jakintza-arloari dagokionez. Hirugarren multzoa, historia eta kultura aldizkariak, gehienbat, osatzen dute, baina nabaria denez euskarazko lanek toki urria dute bere orrialdeetan.

### 3.6. Liburu egileak liburu kopuruaren arabera

Egile kopurua	Liburu kopurua
80	1
20	2
10	3
8	4
1	5
3	6



Guztira 122 liburu-egile daude, eta 182 liburu idatzi dituzte. Beste grafiko-mota batekin, agian, hobeto ikusiko da datu hauek erakusten duten errealitatea.



Datuek aurreko atalean esandakoa berresten dute, euskaraz liburu bat idatzi dutenen artean 100 lagunek bakarra edo bi idatzi ditu eta 3 baino ez dira 6 liburu baino gehiago idatzi dituztenak. Izenak ere errepikatu egiten dira, neurri handiz.

#### 4. EUSKARAZKO HISTORIOGRAFIAREN IBILBIDEA 1973-2001

Lau dira hurrengo atal honetan aztertuko ditugun ibilbideak. Lehen, euskarazko historiaren tokia mundu akademikoan. Bigarrena, argitaletxe pribatuaren zeregina historia-lanen zabalkundearen. Hirugarrena, euskaraz idatzitako Euskal Herriko Historien ezaugarriak eta azkenik historia unibertsitatearen arloan egindako ahaleginak.

##### 4.1. Euskarazko historia mundu akademikoan

Euskal Historiak arazo bikoitza izan du unibertsitateen munduarekin. Lehen hemengo erakunde unibertsitarioetan: Historia-ikasketarik ez izatea 70eko hamarkadara arte. Bigarren arazoa euskararen presentzia falta sortu zen tokietan, (Deustun, Nafarroako Unibertsitatean eta Euskal Herriko Unibertsitatean). Beraz, ez da harrizkoa, unibertsitatearekin izandako harremana erakunde ofizialetatik kanpo izatea. Donibane Lohizunen, 1973an, Udako Euskal Unibertsitatea lehen aldiz antolatu zenean Historia gai nagusietako bat izan zen<sup>36</sup>, ikasgai horren azpian bost hitzaldi bildu baitziren: Piarres Narbaitzen “Nafarroako erreinua nola eta norekin sortu den”, Juan San Martinen “Lehenengo euskal edergintza: Harri Aroko edergintza. Erdi Aroko eta Pizkunde arokoa”, Joseba

36. UEUren historiari buruz ikusi AIZPURU, M.: *Udako Euskal Unibertsitatea euskal kulturgingintzan. Hasierako urteak 1973-1984*, Bilbo, UEU, 2003. Historia Sailaren berri zehatzagoa AIZPURU, M.: “Hitzetik idatzira, jauzi zaila. UEUko Historia Sailaren historiarako oharra”, *Kondaira.com*, 2003.

Intxaustiren “Ipar Euskal Herria 1870etik 1914rat”, Jose Luis Lizundiaren “Geografia politikoaren ixtorioa” eta J. Larramendiren “Gaurko euskal edergintza”. Hitzaldi-sorta horrek Historiak UEUn hurrengo urteetan izango zituen hainbat ezaugarri iragarri zituen jardunaldi hark: gaien dibertsitatea, denbora historiko desberdinen azterketa, hiztegi bateratuaren falta, irakasleen aniztasuna eta beraien harreman falta unibertsitate ofizialekin. 1977an, Historia Saila sortu zen Joseba Intxaustiren eskutik, baina bertan bildu zirenek ez ziren gai izan lan-talde iraunkorra sortzeko. Ez ziren gutxi Historia euskaraz landu nahi zutenek zituzten arazoak. Honela laburbildu zituen Jaxinto Setienek: “euskal historiaren ezagutza eskasa, gizarte-zientzien parzialtasuna eta globalizazioaren eza, hiztegi tekniko berezituaren premia, ikerlanen falta gorria, euskararen presentzia motza, gizarte-zientzien irakaskuntza arazoak eta abar”. Hurrengo urtean, UEUko Historia Saila saiatu zen arazo horiek gainditzeko. Historia-Geografia arloan lan egiten zuten argitaletxe eta taldeen aurkezpena antolatu zuen: Gero, Ingeba, Iker, Gordailu, Etor, Jakin, UZEI, UNED eta EUTGrena. Bestalde, Batxilergoan eskaintzen ziren Historia, Geografia eta Artea nola irakatsi lantzeko mintegiak antolatu zituen Historia Sailak. Ahaleginak ahalegin, ez zen talde iraunkorrik lortu eta Gordailu taldea eta UZEIren bidez gauzatu ziren kideen asmoak. Hurrengo puntuan ikusi dugu horien ekarpena.

Sailaren beste ahulezia bat hitzaldietan esandakoak testu idatzira eramateko ezintasuna zen, UEUren Giza eta Gizarte-Zientzia Sail gehienek arazo bera zena. Hutsune hori gainditzeko, 1981ean kaleratu zen *Historia eta Gizarte-zientzien urtekaria*, Joseba Agirreazkuenaga eta Agustín Azkarateren eskutik. Baina bitzta laburra izan zuen, beste ale bakar bat kaleratu baitzuen talde horrek. Izan ere, aldizkariaren aurkezpena egitean, urtekariaren amaiera iragarri zen eta Eusko Ikaskuntzak argitaratu behar zuen aldizkarian parte hartzeko gonbitea luzatu zieten euskaraz lan egin nahi zutenei UEUko Historia Saileko kideek. Eusko Ikaskuntzari zera eskatzen zioten, aldizkariaren urteko ale bat gutxienez euskaraz izatea. Baina ekarpenen faltaz ez zen bete baldintza hori.

Historia Sailaren ezintasuna azaltzeko hiru arrazoi ditugu. Alde batetik, sailaren ardatza ikertzaileak izatea, ondorengo urteetan mantendu dena, irakaskuntza ertaineko irakasleen eta bestelakoek kaltetan. Baina ikertzaileen kopurua txikia denez, nekez lortu dute gutxienezko masa-kritikoa biltzea beraien inguruan. Bigarrenik, saileko kideen ibilbide profesionala: hauetako batzuek ezin izan zuten jarraitu erabateko arduraldiaz sailaren zuzendaritzan. UEUko barne-eztabaidek, hirugarrenik, izan zuten bere pisua, historia saileko hainbat kide EHUrekiko harremanen aldekoak zirelako eta UEU eta EHUren arteko elkarriketak porrot egin ondoren, ezinegona sortu zelako UEUren barruan. Horren ondorio izan zitekeen hurrengo urteetan EHUK Donostian antolatutako Udako Ikastaroetan euskarazko ikastaroak edo elebidunak bultzatzeko ahalegina. Baina hiru urtez Donostian Historiako ikastaroak antolatu ondoren, baita liburuak argitaratu ere<sup>37</sup>, bidea hori amaitu egin zen.

---

37. Elkar lanean: *Euskal Herriaren Historiaz (I)*, Bilbo, Euskal Herriko Unibertsitatea, 1985.

Elkar lanean: *Euskal Herriaren Historiaz (II). Historiaurrea*, Bilbo, Euskal Herriko Unibertsitatea, 1985.

R. LOPEZ ATXURRA (arg.): *Euskal Herriko Historiaz (III)*, Bilbo, Euskal Herriko Unibertsitatea, 1987.

1980ko hamarkadaren hasieran Irakasle Eskolen euskalduntzea bultzatu zen eta hor aurkitu zuten babesa ikerketa munduan aritu nahi zuten zenbait euskal historialariek, baina ikasketen izaera berak mugatu egiten zuen beraien oihartzun ahalmena. Historia Fakultateei zegokienez, EHUk Gasteizen zuena izan zen euskalduntzea bultzatu zuen bakarra 80ko hamarkadaren bukaeran. Bitartean, bertako ikasleen Euskara Batzordeak antolatuta “Euskal Historiaz I Jardunaldiak” egin ziren 1985ean; orduko historialari ezagunak bildu zituzten bertan (Joseba Agirreazkuenaga, Rafael Lopez Atxurra, Agustin Azkarate, Koldo Larrañaga eta Jose Urrutikoetxea). Hurrengo urtean, hil berria den Manex Goihenetxe aste osoan aritu zen Ipar Euskal Herriko Historia erakusten.

Fakultateko ikasketen lerro euskaldunaren garapenak ez zuen ekarri, lehenengo urteetan behinik behin, aldaketa handirik, ikasleek jasotako heziketaz gaindi. Hainbat arazok eragozten zuten euskal lerroa indartsu garatzea: irakasle euskaldun gehienen gaztetasuna, oso gutxi ziren doktoreak lanean hasi zirenean; hizkuntzarekiko hurbilpen utilitarista zenbait kasutan; eta, oro har, irakasle euskaldun horiek bakoitzaren sailetan zuten posizioa, bigarren mailakoa. Baldintza horiek aldatu diren neurrian egoerak hobera egin du azken urteetan. Edozein kasutan, bi ondorio begi-bistakoak dira: bat, irakasle gehienentzako gauza bat da eskolako hizkuntza, euskara, eta bestea ikerketa-hizkuntza, gaztelania kasu gehienetan, argitalpen gehienak eta tesia kasu ia guztietan hizkuntza horretan egin ditugulako. Bigarrena, ikerketarako eta klasez kanpoko euskararen aldeko ahalegina ez dela fakultateko irakasle eta ikasleen esku egon, UEUren Historia Sailaren esku baino.

Izan ere, 1986an belaunaldi berri bat integratu zen Historia Sailean, Gasteizko Historia Fakultateko lizentziadun berriz osatua. Beraien ardura izan dira udako ikastaroak, urtean zehar antolatutako hitzaldi-zikloak eta Gasteizko Historia Fakultatean prestatutako “Euskal Herriko Historiaz jardunaldiak”. Mende berriarekin gainera “Euskal historialarien topaketak” ere antolatu ditu; dagoeneko hirugarrena amaitu berria dugu. Ia hogeitaz Saila zuzendu duen talde horren emaitzen artean dugu ikastaroei emandako sendotasuna, urtez urte, hutsik egin gabe, antolatu direlako; kasu gehienetan gai desberdinei buruzko monografikoak prestatu dira, gai solteak baztertu gabe<sup>38</sup>. Sailari egonkortasuna emateaz gain, taldekideen arteko harremanak eta adiskidetasunak belaunaldien arteko txandatzea era egokian eta apurketarik gabe egiten lagundu du; egitasmo koherentea osatu da, euskaraz lan egiteak dituen mugak kontuan hartuta. Euskal Herrian euskaraz lan egiten duten historialari guztiak UEUra hurbiltzen saiatu da Historia Saleko taldea. Iritzi eta arlo desberdinetako ikerlari eta irakasleei ateak ireki zaizkie eta garaiko historiografiaren kezkekin bat egiten saiatu dira.

Dena den, produkzio-idatzia bultzatzeko ezintasuna da talde horren hutsune nabarmenena: hitzaldi-sorta zabalak, (300 saio baino gehiago), ez

---

38. Ikastaro monografikoen gaiak jakin nahi dituenak jo beza hona, AIZPURU, M.: “Hitzetik idatzira, jauzi zaila. UEUko Historia Sailaren historiarako oharra”, *Kondaira.com*, 2003.

du bat egiten garai berean UEUren argitaletxeak plazaratutako historiako liburu-kopuruarekin: monografia pare bat<sup>39</sup> eta bost ikastaroen hitzaldiak jasotzen dituzten bildumak: *Historia, zientzia ala literatura* (1995), *Industrializazioa* (1995), *Militarismoa eta antimilitarismoa* (1997), *Historia eta fikzioa:Karlomagno Euskal Herrian* (2001) eta *Ikerketa berriak Euskal Herriko historian* (2002).

Irakaskuntza ez-unibertsitarioan ari direnak hurbiltzeko ahaleginek –urriak bestetik– ez zuten emaitza egokirik eman, salbuespen batzuk izan ezik. Horien artean 1999-2000 ikasturtean Batxilergoko irakasleen prestakuntzarako Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren programa barruan (Gartu) antolatutako bi ikastaroak nabarmendu behar dira: Euskal Herriko Historiari eta Gaur Egungo Munduaren Historiari eskainitakoak.

Duela hogeitau urte plazaratutako terminologia-arazoez bere horretan jarraitzen dute, historialarien sakabanaketak eta lehentasun desberdinek bigarren mailan utzi dituztelako; izan ere, irakasle, ikerle eta ikasle bakoitzak bere erara erantzuten diete lanean sortutako kezka eta galderei. Azken urte hauetan Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Errektoreordetzak programak bat abiarazi du, arazo horiek konponbideak jarri nahian, baina oraindik ez du emaitza praktikorik eman.

Mundu akademikoa ez da amaitzen UEUren Historia Saila eta Historia-ikasketetan. Erakundeek antolatzen dituzten sariek aukera eman dute historia-lanek presentzia handiagoa eduki dezaten, nahiz eta, gehienetan, saiakerak biltzea izan sarien helburua eta ez ikerketa-lanak laguntzea. Horixe gertatu zen Eusko Jaurlaritzaren Axular sariekin eta Gipuzkoako Kutxaren Irun Hiria sariekin; eta hala gertatzen da, neurri batean, Euskaltzaindiak eta BBK sortutako Mikel Zarate sariekin<sup>40</sup> edota Gipuzkoako Maizpide Euskaltegiak deitutako Gerriko sariekin.

Bestalde, ugari dira euskaraz idatzitako historia-lanek jarraitu dituzten bideak eta garaiak. Tokiko Historiarekin lotutakoek dute pisu nabarmena, baita euskal kulturarekin lotutakoek ere, baina badaude bestelako gaiak eta diziplinak ere. Hala, historiografiaren inguruko kezka nabarmendu behar da. Hausnarketa-mota horrek jarraitzaile gutxi zituenean gure artean, *Jakin* aldizkariak ale bat eskaini zion euskal historiografiari (55.a, 1989) eta bertan bildu zituen puntako zenbait historialariren lanak (Agirreazkuenaga, Urrutikoe-txea, Majuelo, Lopez Atxurra eta Apalategi). *Uztaro* aldizkariak ere, “liburuen

---

39. AIZPURU, M.: *Eta Tiro Baltzari. Abertzaletasuna eta jauntxokeria Bermeon 1899-1914*, Bilbo, Udako Euskal Unibertsitatea, 1990.

BUJANDA, J.: *Euskara eskolan eraiki nahi zuen euskal pedagogoa aurrerakoa: Agustín Pascual Iturriaga, Hernani 1778/1851*, Bilbo, Udako Euskal Unibertsitatea, 1991.

40. Ikusi adibidez, SUDUPE ELORZA, P.: *Nemesio Etxanizen biografia eta ideologia*, Bilbo, Euskaltzaindia-BBK, 1996; KINTANA GOIRIENA, J.: *Vizcaytik Bizkaira? R.M. Azkue Euskaltzaindia sortu aitzin (1888-1919)*, Bilbo, Euskaltzaindia-BBK, 2002 eta ARBELBIDE, X.: *Jean Pierre Goytino eta “Californiako Eskual Herria”*, Bilbo, Euskaltzaindia-BBK, 2003.

aipamena” sailean arreta berezia eskaini dio historiako liburuen kritikari eta nabarmentzekoak dira Iban Zalduak egindakoak. Gainera, UEUren Historia Sailak argitaratutako liburuen artean bik kezka hori izan dute gaitzat: *Historia, zientzia ala literatura* (1995) eta 2002an kaleratutako *Ikerketa berriak Euskal Herriko historian* liburuak. Historialari erdaldunek arazoak baldin badituzte Euskal Herriaren muga historiografikoak finkatzeko orduan, euskaldunek zalantza gutxiago dituzte, baina definizio zabalak, hots zazpi lurraldeearrenak, makina bat buruhauste sortzen ditu. Euskal Herri osoko historia nola idatzi etengabeko kezka da euskarazko historialarien artean eta horren adibide dugu eguneroko prentsan edota une jakinetan antolatutako mahai-inguru eta eztabaidak<sup>41</sup>.

Monografiari dagokienez, euskarazko produkzioa ez da izan oso oparoa, baina badaude hainbat adibide hizkuntzaren traba gainditu dela erakusten dutenak. Horien lekuko ditugu, adibidez, Joseba Agirreazkuenagaren zenbait lan<sup>42</sup>, Gotzon Iparragirrek XIX. mendeko Iruni eskainitakoa<sup>43</sup> eta Xabier Lasak Gerra Zibilari buruz idatzitakoa<sup>44</sup>. Askoz gehiago dira euskara edota euskal kultura ardatzat hartzen dutenak, Txema Larrearen *Euskaldungoa Erroizturik*, (1994), Javier Díaz Nociren *Euskal prentsaren sorrera eta garapena (1834-1939)*, (1995), Xabier Erizeren *Nafarroako euskararen historia soziolinguistikoa (1863-1936)*. *Soziolinguistika historikoa eta hizkunta gutxituen bizitza*, (Iruña, 1997) edota Imanol Esnaolaren *Lezoko euskararen historia soziala* (1999), besteak beste. Euskal abertzaletasun historikoaren iraganak, aldiz, ez du hainbesteko arreta jaso<sup>45</sup>. Dena den, azken urte hauetan, badaude lan batzuk, herrietako historia azaldu dutenak<sup>46</sup>. ETaren inguruan gorpuztutako abertzaletasunak arreta gehiago jaso du euskaraz, baina hemen ere, ikerketaren bigarren mailako hizkuntza izaten jarraitzen du.

Badaude, halaber, askotan Historia diziplinatik arinegi baztertzen ditugun gaiari buruzkoak, hala nola Kepa Altonaga biologoak XIX. mendeko bi zientzia-

---

41. Ikusi adibidez, “Nola kontatu gure historia?”. Egunkaria, 2002-12-7.

42. AGIRREAZKUENAGA, J.: *Gerra eta bakea Euskal Herrian. Politikagintza lege zaharraren krisialdian*, Donostia, Gaiak, 1993.

AGIRREAZKUENAGA, J.: *Iraultza Industrialari abiatu ezinik: Euskal Herriko ekonomiaren gora-beherak Lege Zaharraren kinkan (1778-1880)*, Donostia, Gaiak, 1993.

43. IPARRAGIRRE BURGEOA, G.: *Txano frigarretik karlisten txapelera (Irun, 1789-1839)*, Irun, Luis de Urantz Kultur Taldea, 2001.

44. LASA BERGARA, X.: *Gerra zibila: andoaindarren begietatik saiakera*, Andoain, Andoaingo Udala, 1994.

45. BANDRES UNANUE, L.M.: *Euskal abertzaletasunaren Historia: 1936 arte*, Bilbo, Sabino Arana Kultur Elkargoa, 1991.

46. BARANDIARAN, M.: *Euzko Alderdi Jeltzalea Beasainen 100 urteko historia*, Beasaingo Uri Buru Batzarra, Beasain, 1995; RODRIGUEZ RANZ, J.A.: *Tolosa euskal abertzaletasunaren bihotza: EAJren historia Tolosan*, Bilbo, Sabino Arana Kultur Elkargoa, 1995 eta BARANDIARAN, M.: *Abertzaleak Zumaian: ibilbide luze baten arrastoan*, Bilbao, Sabino Arana Kultur Elkargoa, 2001.

lariri eskainitakoak<sup>47</sup>, eta bietan erakutsi du ederki metodo historikoaren gaitasuna ikerketa bat bideratzeko orduan. Antton Azkonak ingurugiroari eskainitakoan industrializazioaren eragina erakusten duenean izan daiteke beste adibidea<sup>48</sup>.

Aldizkarien artean, lehen ikusi dugunez, ez da egon bereziki euskarazko historiari eskainitakorik iaz Kondaira.com (www.kondaira.com) sareratu arte. Historia-aldizkari gehienek eredu elebidunari eutsi diote eta euskarak maiz toki urria bereganatu du, nahiz eta horren errua aldizkariena baino gehiago idazleona izan. Euskaraz idatzitako aldizkari askok historiako lanak onartu dituzte beren orrialdeetan, baina ez lehentasunik eman. Are gehiago, historia eta gizarte-zientziak euskaraz bereziki landu nahi zituzten aldizkari gehienak, *Zehatz* edota *Larrun* esaterako, itxi beharrean egon dira.

Gaztelania da Euskal Herriko Historia lantzeko gehien erabiltzen den hizkuntza. Eusko Jaurlaritzak kaleratu zuen azterketa batean EHUko Geografia-Historia Saitetako irakasleok 1994tik 1998ra bitartean argitaratutako lanei buruzko honako datu hauek argitaratu ziren: liburu guztien % 8,7, liburu-atalen % 11,2 eta artikuluen % 4,9 baino ez zeuden euskaraz idatzita<sup>49</sup>. Beraz, gutxi dira gure hizkuntzan idatzitako lanak eta are gutxiago ikerketa-lanak direnak, horiek batez ere aldizkarien bitartez zabaltzen direlako. Tokian tokiko historian, zuzenean edota itzulpenen bitartez, ugariak dira euskaraz argitaratutako lanak, baina ez da gauza bera gertatzen ikerketaren munduan. Izan ere, euskara existitzen dela juxtu-juxtu dakiten askok, ez dute hizkuntzaren aldagaia beraien ikerketan erabiltzen, are gutxiago euskaraz idatzita beren gaiaren inguruan egon daitezkeen lan apurrak. Lanen kalitatea kideek finkatzen duten neurrian, eta, izandako aipu-kopuruaren arabera neurtzen denez, euskarak atzera egin du, baita bere hasieran lanak euskaraz idatzi zituztenen (genituenen) artean ere.

Hiru irtenbide daude arazo hau konpontzeko. Lehena ikertzaile-irakasleen lana sendotzea da, lanpostuaren (oposizioen) ardura desagertzen den neurrian (lortu delako edota garbi dagoelako ez dagoela modurik lortzeko), gaztelaniaz argitaratu beharra ere desager liteke eta. Gutxienez ikerketa hutsa ez diren lanetan. Izan ere, horietan ziur aski, gaztelaniaren ordeztu, ingelesa nagusituko da hamar bat urte barru. Bigarren konponbidea irakurle euskaldunen kopurua handitzea da. Pixkanaka-pixkanaka gora egiten ari da eta aukera emango du, euskaraz idatzi arren, oihartzuna jasotzeko. Azken irtenbidea erakundeen bultzada izan daiteke. Hots, ikertzaile euskaldunak edota euskaraz idatzitako lanak eskatzen diren neurrian, kopuruak gora egingo du. Dena

---

47. ALTONAGA, K.: *Folin markesa: marraskiloak eta euskaldunak uharte galduan*, Donostia, Elhuyar, 1998 eta *Armand David Pandaren aita*, Usurbil, Elhuyar, 2001.

48. AZKONA LANDETA, A.: *Giza ekintzen eragina Euskal Herriko ingurugiroan*, Bilbo, UEU, 1989.

49. HAINBAT EGILE: *Euskal Herriko Unibertsitatearen Humanitate eta Giza Zientzien arloetan egindako ikerlanaren ebaluazioa*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritza, 2001.

den, ez dirudi hori denik erakunde publikoen jarrera azken urteetan, nahiz eta Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak politika berriak euskaraz argitaratuta-ko lanek balorazio berezia izango dutela iragarri.

#### 4.2. Zabalkunde-lanak

Ikerketa-arloko lanak mugatuak badira, produkzio zabalagoa aurkitu dugu zabalkunde-lanen eta sintesien eremuan. Franko hil eta hurrengo urteetan hainbat lan kaleratu ziren Euskal Herriko historia irakurle talde zabal bati eskaintzeko asmoz, (lan batzuk hurrengo atalean ikusiko ditugu), bereziki ikastoletako ikasleei<sup>50</sup>. Zenbait erakundek bultzatu zuten lan-mota hori 1990eko hamarkadan. Aldundiek, udalek, azken urteotan sortu diren museoe-ek eta zenbait erakusketak indar berria eman diote euskarazko produkzioari, nahiz eta kasu askotan, gehiegitan, euskarazko testuak itzulpenak izan. Zabalkundeak eman ditzakeen emaitzen lekuko da, besteak beste, Josu Chuecaren eta Luis Fernandez-en *Espainiako Gerra Zibila Euskal Herrian* (1997), bertan ikerketa eta zabalkundeak ederto tartekatzen zirelako. Bada, halaber, zabalkunde lan horretan aitortza berezia behar duten bi erakunde, *Gordailu* taldea eta bere jarraipena den *Gaiak* argitaletxea.

*Gordailu* taldea 1970eko hamarkadaren hasieran sortu zen talde pedago-giko moduan, eta Historiak toki berezia izan zuen bere jardunean. Horrela 1976an Otaegiren *Haitzulotako euskal gizona* eta J.M. Arrietaren *Orreagako gudua* liburuxkak (28 orrialde bakoitzak) plazaratu zituen eta hurrengo urtean Jazinto Setiienen *Euskal Herriko Historia*-ren lehenengo atala. Lan horien ondoren, isilunea gertatu zen, Bilboko Mensajero etxeak estalita neurri batean. Euskarazko irakaskuntzaren beharrek bultzatutako lanak ziren gehienbat. Laurogeiko hamarkadan izan genuen *Gordailuren* produkzioa berriz ikusteko aukera. Hala 1983an plazaratu zen *Oihenart Taldearen Euskal Historia Zenbait apunte* liburua, testu eta ariketez lagunduta. Hurrengo urtean, aldiz, bilduma berri bati eman zitzaion hasiera *Foruen aurkako saioaldiak eta herri-erreboltak* (1984) liburuarekin (95 orrialde). Hitzaurreak ondo laburbildu zituen bildumaren helburuak eta euskarazkako historiaren egoera:

Lehena, Euskal Herria bere historian zehar dituen bereizgarriak ezagutzera ematea. Gero, geure historia hori euskaraz lantzea jakina; eta hirugarren, modu erraz batetan, hots, ulergarri eta ahal den heinean irakurgarri gainera gertatzeko moduan xeheturik ematea.

Badakigu historia euskaraz lantzeak, hiztegi historikoa egiteke dago eta, muga handiegia suposatzen duela. Gai historikoez badute, bestalde, beren idaz tankera berezia. Horren hutsunea ere gauza nabaria da gurean. Eta azkenik, ez dugula historia euskaraz irakurtzeko ohitura handirik.

---

50. Hauek dira IKASTOLA LIBURUTEGIA bildumarako aurreikusitako lehen izenburuak: 1.- Iparragirre, 2.- Ulibarri, 3.- Orreagako gudua, 4.- Euskal-Herriaren Historia I, 5.- Etxahun, Kobla-karia, 6.- Gaiarre, 7.- Euskal-erromanikoa, 8.- Iturriaga, 9.- Bianako Printzea, 10.- Jauregi, artzain eta basa-gerlari.



Guztiaren gainetik, geroari buruz ari gara eta gero honek egiten gaitu itxaropentsu.

Liburu horren atzetik etorri ziren Alizia Stürtzeren *Sorginak eta errepre-sioa Euskal Herrian*, *Murgil Taldearen Kontrabandoa eta Euskal Herria* (1985), *Donostia Gipuzkoaren aurka? (I) Hiri burges baten sorrera*. (1987) eta *Euskal Hiztegi Historikoa: Erdi Aroa eta Aro Berria* (1987). Dena den, ez zen lehen liburuan iragarritako bilduma osoa kaleratu, ezagutzen ez ditugun arrazoiak zirela medio.

Hurrengo urtean, aldiz, argitaletxe berria plazaratu zen, *Gaiak*, *Gordailu*-ren jarraipen garbia, Alizia Stürtzeren *Agotak*, *juduak eta ijitoak Euskal Herrian* lanarekin. Liburuak "Historia eta Gizartea" sailari eman zion hasiera eta horretaz gain "Zientziak eta Natura" bilduma eta "Oinarrizko liburutegia" zabaldu zituzten. Asko izan dira harrezkero argitaletxeak eman dizkigun izen-buruak, batzuk euskaraz idatzitakoak, beste batzuk itzulpenak (euskal idazle-enak eta atzerrikoenak), ikerketak eta sakontasun handikoak batzuk, zabalkunde edo dibulgaziokoak beste asko. *Gaiak* argitaletxearen asmoa historia euskaraz lantzea ez ezik, historia-liburuetan baztertuta egon diren gizarte sektoreak (emakumeak, esklaboak, zapalduak) berreskuratzea da. Ezaguna da, halaber, zenbait lanen zama ideologikoa eta lerratze politikoa nabaria. Edozein kasutan, beste argitaletxe eta hizkuntza batzuetan ere gertatzen dira horrelakoak.

Ipar Euskal Herrian, zabalkunde-lanak dira euskarazko historiari toki apur bat utzi dioten eremu bakarra, eta bi dira zeregin horretan nabarmendu diren historialariak: hil berria dugun Manex Goihenetxe<sup>51</sup> eta Xipri Arbelbide<sup>52</sup>. Bien kasuan tartekatu dira ikerketa eta sintesi-lana. Ikerketa-lanen adibide dugu herrialde horretan Historia eta Zientzia Politikoaren artean ari den Xabier Itzainak egindakoa<sup>53</sup>.

Zabalkunde-lanek izan dituzte beste bultzatzaile batzuk ere, horien artean bada bat, nahiko isilean dabilena bere hizkuntza-ereduak eta defendatzen dituen balio askok toki gutxi dutelako gaur eguneko Euskal Herrian: *Euskerazaintza* erakundea eta aldizkaria eta Bizkaiko bere ordezkaria den *Euskarazaleak* elkarte eta *Zer* aldizkaria. Bi aldizkari horietan historiako lan dezente aurkitu daiteke, hil-berria den Anes Arrinda eta Martin Olazarren eskutik, batez ere. Arrindak, gainera, hainbat liburu argitaratu zituen, *Euskal Herria eta arrantza* (1977) da bat. Erljio-gaiek, kristautasunaren sarrera Euskal Herrian bereziki, pisu nabarmena dute egile horien artean, baina baita euskara batua onartu zuten beste erlijio-talde batzuen artean ere, Karmeldarrak eta frantziskotarrak lekuko.

---

51. GOIHENETXE, M.: *Lapurdi Historian*, Elkar, Donostia, 1987.

52. ARBELBIDE, X.: *Enbata: abertzalegoaren historia Iparraldean*, Donostia, Kutxa Fundazioa, 1996 eta *Iraultza Heletan*, Donostia, Etor, 1993.

53. ITZAINA, X.: "Eliza, Herri-kultura eta politika. Besta-berri Ipar Euskal Herrian", *Uztaro*, 20, 1996, 3-16 eta "Erljioa eta herri-nortasuna", *Uztaro*, 31, 1999, 129-150 orr.

### 4.3. Euskal Herriaren Historia

Euskarazko lan gehien aztergaia Euskal Herria dugu, baina gutxitan saiatu dira historialariak lurralde osoaren ikuspegia eskaintzen. 1980ko hamarkadaren hasieraren inguruan egon ziren proposamen batzuk, baina arrakasta gutxikoak. Lehen ahalegina Jazinto F. Setienena izan zen 1977 inguruan, *Euskal Herriaren Historia (1)* liburuarekin, *Gordailu* argitaletxeak sortutako "Ikastola bilduma"ren barruan. Lehenengo alean, Euskal Herriko lurraldearen aurkezpen laburra egín ostean, herri berezituaren arrastoak nabarmentzen dira, baita gure ustezko ekonomiaren ardatzak ere, (artzaintza eta arrantza). Ondoren erromatarren garaitik hasi eta Errege Katolikoek garairarte arteko tarteazaltzen da. Adierazgarria da darabilen bibliografia<sup>54</sup>, ez delako berrikuntza historiografikoaren aztarna handirik. Bigarren tomoa ez zen 1983ra arte azaldu; eta Aro Modernoa aztertzen zuen Napoleon garaira arte.

Bi ale horien artean beste zenbait liburu kaleratu ziren; honako hauek izan ziren egileak: Martin Ugalde<sup>55</sup>, Gregorio Arrien<sup>56</sup>, Luis Baraizarra<sup>57</sup>, Manuel Estonba eta Donato Arrinda<sup>58</sup>, Abel Ariznabarreta<sup>59</sup> eta Jesus Elortza<sup>60</sup>. Antzeko ezaugarriak zituzten guztiek, testuaren behin-behinekotasunaren aitortza; orrialde-kopuru mugatua (100 eta 200en artean); kezka didaktikoa (irudiak, mapak eta galdetegiak gehitzen zituzten ulermena errazteko) eta politikari ez ezik, ekonomia-, gizarte- eta kultura-gaiei eskainitako tokia. Bazeuden beste ezaugarri batzuk ere: aro garaikidearen aipamen urria; abertzaletasunari eskainitako toki zabala, baita, zenbait kasutan, langile-mugimenduari; egileek harremanik ez izatea ikerketa-munduarekin: eta, salbuespenak salbuespen (Ariznabarreta eta Elortza), puntako bibliografiaren erabilera mugatua. Toki faltak ez digu aukerarik ematen epaiketa zorrotzegi honi ñabardurak eransteko, ezta garai berean gaztelaniaz argitaratutakoekin erkatzeko ere, horiek ere beraien hutsuneak zituztelako, baina hurrengo batean izan beharko du.

---

54. ZABALA, F.: *Euskal-Herriko Historiaren laburpena*, Donostia, 1971.

ASKOREN ARTEAN: *Lur eta Gizon-Euskal Herria*, Arantzazu-Oinati, Jakin, 1974.

SÁNCHEZ ALBORNOZ, N.: *Vascos y navarros en su primera historia*, Madrid, 1974.

NARBAITZ, P.: *Le Matin Basque*, Paris, 1975.

DAVANT, J.L.: *Histoire du Pays Basque*, Baiona, 1970.

ORTZI: *Historia de Euskadi*, Paris, Ruedo Ibérico, 1975.

LACARRA, J.M.: *Estudios de Historia de Navarra*, Pamplona, 1971.

55. UGALDE, M.: *Euskal kondairaren sintesia*, Donostia, Vascas, 1978.

56. ARRIEN, G.: *Euskalherriaren kondaira*, Bilbo, Gero, 1978.

57. BARAIZARRA, L.: *Euskal Herriaren Historia (1) eta (II)*, Bilbo, Gero, 1980.

58. ARRINDA, D. eta ESTONBA, M.: *Los vascos: Euskal Kondaira*, Bilbo, LGEV, 1980.

59. ARIZNABARRETA, A.: *Euskal historia zenbait apunte. Euskaltzaindiaren D titulorako burutua*, Donostia, Elkar, 1981.

60. ELORTZA, J.: *Euskal Herriaren historia*, Donostia, Elkar, 1983-1985, (3 liburu).

Ahalegin berezi bat egin zen, gaztelaniazko testuak eta ikerketak euskarazkoekin biltzeko, Joseba Intxaustiren eskutik, *Euskal Herria. Historia eta Gizartea*<sup>61</sup>. Testuak euskara eta gaztelania tartekatzen zuen, nahiz eta euskarazko orrialde askoren jatorrizko hizkuntza gaztelania izan. Hala ere emaitzak ez zuen denen gustua ase. Liburuak euskal gizartearen eta iraganaren ikuspegi zabala eta oparoa eskaintzen zuen, baina hainbeste arlo eta hain desberdinak hartzean, bere 613 orrialdeak, nekez bilaka zitezkeen jende arruntak behar zuen eskuliburua. Harrezkero, ez da egon beste ahaleginik Euskal Herriaren Historiarik sortzeko euskaratik abiatuta. Argitaratu direnak, batzuk oso baliotsuak, itzulpenak izan dira.

#### 4.4. Historia Unibertsala

Euskararen garapen nahiek eta irakaskuntzaren beharrek hainbat ondorio izan dituzte. Horien artean bada bat deigarria. Gaztelaniaz idatzitako lanen gaia Euskal Herria izan da; nekez aurkitzen ditugu Espainiari buruzkoak eta are nekezago Europa edota mundua aztertu nahi dutenak. Euskaraz, aldiz, lan-mota horrek jarraitzaile gehiago izan ditu. Bigarren atalean ikusi dugunez, 1970eko hamarkadaren hasieran Mikel Ugalde, Joxe Azurmendi eta Gotzon Garateren aztergaiak Euskal Herritik kanpoko gaiak izan ziren. Laurogeiko hamarkadaren hasieran indartu egin zen joera hori, irakaskuntzaren beharrak zirela medio. *Gordailu* eta UZEI (Unibertsitate Zerbitzueterako Euskal Institutua) izan ziren kezka horren bultzatzailea. Joseba Intxausti, UZEIko lehen zuzendaria eta UEUko Historia Sailburu ohiak bideratutako lanen artean ez zen egon, harrigarria badirudi ere, Historia Hiztegia bultzatzea<sup>62</sup>, bai, ordea, diziplina horrekin lotutako testugintza. Ildo horretan, UEUn egindako zenbait ikastaro, terminologia eta hiztegi gintzari buruzkoak, testuinguru horretan kokatu behar dira, baita lan horren emaitza garrantzitsuena ere, hots UZEIk 1984tik eta 1988ra bitartean argitaratutako *Mendez mende* liburu-bilduma, Batxilergoko ikasleei eta irakasleei zuzendutakoa. *Historia/1*. BBBko 1. mailako liburua aurkeztu zenean, egileek (Malores Etxeberria, Iñaki González de Garai, Juan Ruiz eta Alizia Stürtzek) honako hau aitortu zuten, erdarazko testuen itzulpena egiteak konplikazio gutxiago ekarriko zirela:

Errazago, posibilitate gehiagorekin eta kolore eta bestez hornitzeko errezatunez. Baina ezin dugu ikuspegia galdu: kanpoko argitaletxe haundiek negozioa bilatzen dute, planteamentu horrek euskal kulturarentzat esan nahi duen guztia-rekin. Euskararen egoera ez dago sare horietan sartzeko. Prozesu hori hemendik kontrolatu behar da, bai euskararentzat eta bai gure nazio kulturarentzat textuliburuak garrantzitsuak dira monopolioen itzulpenetan erortzeko. (...)

Pedagogia ere landu behar da. Ezin da bigarren mailako kultura bat aurrera atera inguruko hizkuntza indartsuekin erabiltzen den baino pedagogia txarragoa erabiliaz. (...)

---

61. *Euskal Herria. Historia eta Gizartea. Historia y Sociedad*, Oinati, Caja Laboral Popular-Jakin, 1985.

62. Edozein kasutan, gogoratu behar da UZEIk argitaratutako *Politika Hiztegia*, bertako sarrera askok lotura zuzena baitzuten Historia diziplinarekin.

Euskal Herriaren Historia aztertzen zuen lehen ale horrek bazituen beste bi erronka gainditzeko:

Batetik, txobinismo espainolari kontra egin behar, baldintza txarretan eta irakaskuntza programetan autonomiarik ez dagoela (...) Eta bestetik gure iragana-ren ikuspegi “ikutu” eta “goxatu” bat ematen saiatzen diren nazionalistak<sup>63</sup>.

Ikuspegi propioa lantzeko joera indartu egin zen hurrengo aleetan eta bere gailurra izan zuen *Mendez Mendek Aro Garaikidea* liburuan. Nire ustez, Historia Garaikideari buruz Euskal Herrian egin den ahalegin sistematikoena eta biribilena da. Intxaustiren zuzendaritzapean talde zabal batek burutu zuen lana. Dena den, bi eragozpen zituen: garai hartako beste liburu batzuen parean lehorregia izatea, zuri-beltzezko irudiekin hornituta baitzegoen, eta, bigarrena, luzeegia izatea ikasturte bakarrean azaldu ahal izateko. Azken hori izan daiteke arrakasta mugatuaren arrazoia.

Baina Historia Unibertsalaren lanketa ez da mugatu irakaskuntzara. Arestian aipatutako *Gaiak* argitaletxeak zenbait liburu eskaini dizkio Euskal Herritik kanpoko arloei, esate baterako *Demokraziaren historia*, *Txina* edota emakumeen bizimodua landu dituzte liburuetan. Badira bestelako egile batzuk ere, aita Yurrek Maoren bizitza azaldu zuen<sup>64</sup> eta Pello Salaburuk xx. mendeari buruz hausnartu zuen<sup>65</sup>. *Elkar* argitaletxeak, bere aldetik, biografia-bilduma sortu du eta bertan aurki daiteke, Gandhi, Chaplin, Che Guevara, Duncan, Kahlo, Geronimo, eta Churchillen bizitzen berri, era duinean azaldurik.

## 5. ONDORIOAK

Ez da erraza euskarazko produkzioaren errepasso azkar eta arin honi amaiera ematea, bidean pertsona, lan eta neke ugari utzi direlako eta erraza delako hitz gutxiko epaiketa zorrotzarekin ordu askotako lana alboratzea eta mespretxatzea. Ez da hori izan nire asmoa, inondik inora ere ez; garai bakoitzak bere fruituak ematen ditu eta nekez izango dira gureak oparoak gure aurrekoek egindakoa ahaztu eta baztertuz gero. Kontrakoa izan da nire helburua, euskarak historiari ezer ez diola eman esaten dutenen aurrean, jorratutako bidearen emaitzak erakustea. Baina, era berean, bide horren muga batzuk erakustea. Horrenbestez, balantzea egitean alde positiboa nabarmendu zaigu:

1. Produkzioa emendatu eta aniztu da, hirurogeita hamarreko eskasiaren aurrean.
2. Hizkuntza historikoa finkatzen hasi da, oraindik egiteko asko egon arren.

---

63. Argia 1007, 1984-3-4. “Historia gure begiekin ikusita, 29-30 orr.

64. BARRENETXEA, N. *Mao Tse-Tung. 1936'tik 1954'ra kondaira*, Donostia, 1985.

65. SALABURU, P.: *XX. mendearen argi-itzalak. Ehun urte historiako*, Irun, Alberdania, 2001.

3. Historialari euskaldunen sarea osatzen ari da. Ibilbide honen hasieran gutxi ziren historia euskaraz lantzen zutenak eta are gutxiago irizpide metodologiko zientifikoarekin egiten zutenak. Alde horretatik, aurrerakada begi-bistakoa da

4. Azken hamabost-hogei urteetan, belaunaldi desberdinen arteko lotura gertatu da, nahiz eta aurretik egindakoaren ezagutza falta nabarmendu.

5. Kezka didaktikoa nagusitu da. Erdarazko produkzioarekin alderatuta, (ikerketarekin askoz ere lotuagoa), euskarazko lanak gehiago saiatu dira irakurleak kontuan hartzen eta beren lanak erakargarriago egiten.

6. Beste errealitate batzuk hartu dira kontuan eta landu dira. Lelo zabaldu baten aurka, euskarazko historiografia ez da mugatu euskal gaiak aztertzera. Gure errealitatearen ezagumenduak eta irakaskuntzaren beharrek kanpoko historia ezagutzera eta lantzera eraman gaituzte, gurekin bizi diren historialari erdaldunak baino askoz ere gehiago.

7. Euskarazko historiografiaren eta hurbilekoaren arteko komunikazioa gertatu da, nahiz eta, gehienetan, norabide bakarreko ibilbidea izan; hots, euskaldunok irakurtzen ditugu erdarazko lanak, baina ez alderantziz. Euskarazko produkzioak izan lezakeen arazo bat autoerreferentzialtasuna da. Euskaraz idatzitakoak *corpus* itxia osatzea, hau da, bere erreferentziak beste euskaldun batzuek idatzitakoan soilik aurkitzea, horrek gure ikuspegia pobretzen duelako. Ez da horrelakorik gertatu inoiz, euskarazko idatziak Historiadiziplinak, oro har, garatu dituen metodologia, oinarri, hipotesi eta paradigmen barruan kokatzen dira, onerako eta txarrerako.

Balantze negatiboak ere badauka zer esan, zoritxarrez:

1. Ez da kontrolatzen zer publikatzen den. Kritika ezak eta erakundeen diru-laguntzen politikaren irizpide argien faltak lan askoren argitalpena ahalbidetu du, euskaraz daudelako, kalitatea gorabehera. Badiirudi, erakunde publikoen kezka nagusia irakaskuntzarako beharrezkoak diren bitartekoak segurtatzea dela, eta hortik kanpo ez dagoela norabide jakin bat. Nekez onartu beharko litzateke, esaterako, gaztelaniaz idatzitako erdi-ipurdizko Euskal Herriaren Historiak euskarara itzultzea.

2. Historialarien euskarazko produkzioaren urritasuna eta maiztasun falta. Azterketa kuantitatiboan ikusi dugunez, ehunka dira euskaraz hitzaldi bat edo artikulua bat idatzi dutenak, baina ez dute jo hortik aurrera. Ekarpen baliotsu, baina mugatu, horren zergatiak zehaztea lan zaila da.

3. Historialari euskaldunen kopuru txikia eta lan egiteko era isolatua. Zaila da eremu espezializatueta historialari euskaldunen eztabaida ahalbidetuko duen kopuru nahikoa aurkitzea. Horren ondorioa da, ikerketaren munduan, gaztelania erabiltzea komunitate zientifikoko kide izan nahi bada.

4. Euskal Herriaren Historiaren ikuspegi orokorra lantzeko gaitasun-eza. Horren erakusgarri dugu azkeneko urteetan egindako ahalegin garrantzitsu guztiak gaztelaniaz edo frantsesez egin izana.

5. Historialari euskaldunen izaera periferikoa. Historialari erdaldunek, hemengoek zein kanpokoek, nekez ezagutzen dute euskaraz egiten dena eta ez dute kontuan hartzen beren lanetarako.

6. Mundu akademikoan lehiatzeko mugak. Aurreko puntuaren ondorio zuzena. Egia da lerro elebidunen garapenak irakasle euskaldunen kontratazioa ahalbideratu duela, bai irakaskuntza ertainean, baita goi-mailakoan ere. Baina, unibertsitatean behin sartu ondoren, eta, maiz, aurretik ere, pertsona horrek prestigioa lortu nahi badu eta bere karrera akademikoa bultzatu, erdarara jo behar du. Ez dira gure artean bota Gironako Unibertsitateko Xavier Torres historialari modernistak entzun behar zituenaren modukoak. Izan ere, irakasle honi oposaketan plaza ukatzeko erabilitako argudioen artean, tribunaleko kide batzuek (Espainiako unibertsitateetatik etorritakoak) hau erabili zuten, bere curriculuma desagokia zela, "tant per la temàtica com per la llengua emprada", hots, bere ikergunea Katalunia zelako eta lanak katalanez argitaratzen zituelako<sup>66</sup>. Hemen, esan bezala, ez da horrelakorik gertatu, baina irakasle erdaldun batzuentzako euskarazko liburuak ez dira existitzen eta, ondorioz, ezta egileen merituak ere. Muga horrek badu beste esparru bat, doktoradutza-bekena, epaimahaiak kanpoko irakaslez osatuta daudenez, egitasmoa, praktikan, gaztelaniaz idatzi behar da, itzulpen desagoki batek edota honen faltak toki txarrean jar dezakeelako beka-eskatzaile euskalduna.

Beraz, motibo nahiko ditugu pozik egoteko, baina beste hainbeste kezkatu azaltzeko. Egoerak, nik uste, orain artekoaren hausnarketa eskatzen du eta, neurri batean, norabidea aldatu beharra ere bai. Bide horretan, maiz eduki dudana tentaldi bat gainditu behar dugu, hots mundu akademikoaren eredu kopiatzea. Ez ditugu erdaldunen tresna berberak; batzuek gure alde jokatzeko dute, baina gehienek gure aurka eta horrenbestez, eredu berriak asmatu beharrean gaude. Ahalegin eraginkorrek bultzatu behar ditugu, historiaren arlo desberdinak elkarlanean aritzeko modukoak eta oihartzun eta eragin handiena eduki dezaketen esparruak finkatu behar dira. Horietako bi Tokiko Historia eta sintesi-lanak dira. Hain zuzen, hartzaile gehiago eskuratzeko aukera ematen duten eremuak. Unibertsitateko ikasleek eta ikerlari gazteek egindako ahaleginek ere plazaratzeko tokia behar dute. Gaur egun, Internetek eskaintzen dituen baliabideak irtenbide egokia izan daitezke. Horixe da, hain zuzen, Kondaira.com-en helburuetako bat.

Ikerketari dagokionez, nekez lehia genezake punta-puntako ikerketa-munduan; baina unibertsitatearen eta komunitate zientifikoaren presioa gorabehera, ezin diogu uko egin norberaren hizkuntza erabiltzeari hizkuntza historiografiko moduan. Institut d'Estudis Catalans-ek azpimarratzen zuenez, beste hizkuntza eta herrialdeetan argitaratu daiteke, baina norberarena baztertu gabe<sup>67</sup>. Edozein zientzialariren helburu nagusien artean dago bere ikerketen berri azkarra eta zabalena lortzea, ez baitu zentzurik ikerketak, zabaldu

---

66. *Avui*, 1996-12-31. "Està penalitzat fer història de Catalunya?".

67. *Avui*, 1998-7-8. "L'IEC alerta de l'error de fer història només en castellà".

gabe. Horregatik, gure zientzia esparrurako lan-tresnatzat euskara hartu dugunok, kontraesan eta tirabira sakonen erdian gaude. Gure lanen ondorioak ezagunak izatea nahi dugu eta gure hizkuntza erabili nahi dugu helburu horretarako. Kontutan izanik ikerlarien komunitatea oso txikia izaten dela, hizkuntza txikiak erabiltzeak arestian aipatutako helburu nagusi hori oztopen du. Nola konpondu kontraesan hori?

Erantzuna ez da erraza. hemen hiru bide azalduko ditut, baina bakarrean bil daitezke: kalitatea. Lehenik, jakin behar da noiz ari garen lanean. Guk lantzen dugun gaiak 20-40 adituren arreta jasotzen badu mundu osoan eta bost edo sei lagunena Euskal Herrian, ez du zentzu gehiegirik euskaraz idazteak. Aldiz, inguruko hartzaileak asko izateko aukera badago, euskara erabiltzea da bide zuzenena. Bigarrenik, ez dugu lotsarik izan behar, euskaraz egindako lanak, gero, erdaraz kaleratzeko, gure lanen garrantziaz jabetu daitezenean. Azkenik, biltzar, mintegi, liburu eta idazlanetan ikerlari erdaldunen ezjakintasuna azaldu behar da, baina ez euskaldunak ez direlako, baizik eta ez dituztelako ezagutzen euskaraz landutako ikerketek Zientzia Orokorrari egindako ekarpenak. Gure lanak kalitatezkoak izatea eskatzen du horrek. Espainiako Historia Fakultateetan, nire esparrura hurbilduz, makina bat jendeak irakurtzen ditu katalanez idatzitako lanak, badakitelako testu horietan zer ikasi ugari dutela. Euskaldunok, hizkuntzaren zailtasuna gorabehera, antzeko zerbaiteira heltzen garenean lortuko dugu une honetan jasaten dugun inkomunikazioa apurtzea eta Claveriak 1636an Etxabe eta Garibairen gaztelaniaz idatzitako lanak zirela medio, botatuko erronka “euskaldunak ziren biak, euskaraz behar zituzten egin bere historiak” betetzea.